

GUaiXE.eUS



Urdiain, festak ospatzeko bost egun



Sakanerria >> 6

Ttuntuneroen garaia. Udako festekin batera txistu doinuak batean eta bestean entzunendira. Eta hari lotuta, dantza izanen da



Kultura >> 14-15

Nafarroako Gobernuak hizkuntza politika berria eta azpiegitura egitasmoen berrikuspena egingen du >> 3

Duintasunez, Iurrera



Urbasako saroiko lezean eraildakoen senideak eta ikerketan lagundu zutenak elkartu ziren igandean.



Bidelagun elkarteak dinamizatzen segitzera >> 5



Izurdiagako trenbide-pasa, agorrilean kentzera >> 6



Altsasuk auto klasikoaren topaketa hartuko du >> 12



Berrenoako galtzada azaleratzeko lanak hasi dituzte atzerriko gazteek. Biharko, auzolana >> 5

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU** • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Irune Karasatorre Sureda

1, 2, 3...10! Gure Irunek hamar urte bete ditu! Urte askotarako! ZORIONAK maitia. Maite zaitugu, etxekoek.

Unai Razkin

ZORIONAK Unai. Uz-tailaren 8-an ia 7 urte!! Segi horrela ta muxu haundi bat aita, ama ta Naroaren partetik.



Xabat Muñoz Sesma

ZORIONAK maitia!!! Zure lehenengo urtebetetzea... zein ondo!! Segi hain alaitsu bihotza, izugarri maite zaitugu. Familiye.



Oier Ongay

ZORIONAK polite zure 2. urtebetetzean!! Iraia eta biok asko maite zaitugu!

garilak

3-9

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Chuchin Ibañez y Los Charros.

Garilaren 3an, ostiralean, 19:30ean Urdiaingo igerilekuan.

Arrebote.

Garilaren 4an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazan.



D'Capricho. Garilaren 5ean, igandean, 20:00etan Irurtzungo igerilekuan.

Mendi irteerak

Hecho-Lizara-Gabardito. Garilaren 4an eta 5ean, larunbatean eta igandean. **Etxarriko Larrañeta mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Erreniega-Altsasu. Garilaren

4an, larunbatean, 8:30ean Altsasuko kultur gune paretik. 130 km. **Zikloturista taldea.**

Bestelakoak

Zorri azoka, merkatu soziala.

Garilaren 5ean, igandean, 11:30etik 14:30era Etxarri Aranzako estalopean.

Udako festa goxoa. Garilaren 9an, ostegunean, 21:00etan Etxarri Aranzako igerilekuan. 12 urtetik aurrerako gazteendako.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Garilaren 3an, ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranzako plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Garilaren 5ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

>> Altsasu



Bero izugarriari aurre eginez, zortzikoek ez zuten huts egin San Pedron.

>> Lizarragabengoa



Auzate ederrak izaten dira festetan.

>> Arruazu



San Pedroko erromerian bapo meriendatu zuten arruazuarrek.

>> Uharte Arakil



15. urteurrena ospatu zuten Uharteko konpartsak. N. MAZKIARAN

Ostiralero

SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- Aritz Ganboa
- Rafael Goñi

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Esataria: Eneida

107.3 FM

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

SAKANA

Hizkuntza politika berria eta azpiegitura egitasmoen berrikuspina

Horiek jasotzen dira Nafarroako Gobernu osatzeko lau alderdik sinatutako akordioan. Zortzi gai utzi dituzte adosteko eta horien artean dago Euskararen Lege berria egitea

Geroa Baik, EH Bilduk, Podemos-Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrak 614 neurri dituen gobernu akordioa itxi dute. Uxue Barkosek zuzenduko duen Nafarroako gobernu berriaren jarduna gidatuko duen akordioa da. Hizkuntza politikari dagokionez, lau indarrek adierazi dute euskara "minorizazio linguistiko egoeran dago eta berreskuratze prozesu baten beharra du eta hartatik nafar guztiak aberastu eta onurak jaso behar dituzte". Horregatik, "herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko duen hizkuntza politika berriaren alde" egin dute.

Lau alderdien iritziz, "Nafarroako Gobernuak izan behar du hizkuntza politika proaktibo eta positiboen bultzatzaile nagusia, hala nahi duten herritarrei administrazioarekin euskarazko komunikazioa bermatuz. Gizarte arloan, estrategikoak jo dituzte helduen alfabetizazioa eta euskalduntzea eta euskaraz ari diren hedabideak.

Azpiegitura egitasmoez

Toki garapenari bultzada emate-



Gobernu berria osatzeko Geroa Baik, Bilduk, Podemos-Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrak egindako bileretako bat.

ko Cederna-Garalur moduko egiturak sendotzea aurreikusten du gobernu akordioak. Sakana ukitzen duten azpiegitura zenbait egitasmo aipatzen dira lau alderdien arteko akordioan. Batetik, tren garraioari dagokionez, Nafarroa Mediterraneo-Atlantikoa ardatzetik kanpo ez gelditzea erabaki dute, horretarako "nazioarteko estandarrekin bateragarria den konponbidea emateko" lan egingen du gobernu berriak.

Hondakinei dagokionez, lau indarrek ahalik eta hondakin gutxien sortzera jotzeko jarrera

garbia hartu dute. Hondakin enburrizketaren, berrerabilpenaren eta birziklatzearen aldeko apustua egin dute. Plan berri baten barruan, gizartearen eta eragilearen parte hartze prozesu baten bidez errefusaren tratamendu egokirako teknikak zehaztuko dira, ekonomia, gizarte eta ingurumen ikuspuntuak kontuan izanik. Bestetik, gobernu berriak Olatzagutiko porlandegiak hondakinak errausteko duen baimenaren egoera juridikoa aztertuko du.

Bestetik, elektrizitate hornidura sarearen ikerketa zehatza

eginen du, hura egoki planifikatu eta gauzatzeko. Horren barruan, Sakanan barna egin nahi den Deikatzelu eta Itsaso arteko goi tentsioko linea beharrezkoa den edo ezaztertuko da. Horretarako, energia ebakuatu beharra eta sortzen duen ingurumen eragina aztertuko dituzte. Horren inguruan egitasmoak ukitutako herrien iritzia jasoko du gobernu berriak. Azkenik, lur azpitik gasa haustura hidrauliko edo fracking teknika bidez ateratzea baztertu dute lau alderdiek.

+www.guaixe.eus

Euskararen inguruko 19 akordio

1. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko araudi egokia garatzea.
2. Euskararen Legearen azken moldaketa garatu eta Nafarroa guztiko ikasleek D erduan ikasteko aukera bermatzea.
3. Hizkuntza politikako antolakuntza unitatea egoki kokatu departamendu guztiak eta gobernuaren jardura guztia hartu eta zeharkakotasun izaera izateko.
4. Ekitaldi publiko, komunikazio, protokolo ekitaldi eta, orokorrean, foru erakunde publikoen irudi korporatibo guztien euskararen presentzia egokia bermatu.
5. Gizarte euskararen irudia prestigioa eman eta haren ezagutza eta erabilera buruzko gizarte sentsibilizazioa sustatuko duen komunikazio estrategia berria, berri-

tzailea eta integratzailea, garatzea.

6. Euskararen Kontseilua berritu, osaran gizarteari parte hartze handiagoa eman, baita eskumen gehiago ere.
7. Euskararen egoeraren diagnosi oso eta eguneratua egin, eta Euskara Kontseiluak Plan Estrategiko errealista, egingarri eta eraginkorra diseinatu dezala, gobernuak garatuko duen hizkuntza politikaren oinarri izanen dena.
8. Hizkuntza eskubideak bermatzeko, administrazioaren arloan herritarrei ahalik eta arreta gehien euskaraz ematen saiatzeko konpromisoa hartu. Langileriaren diagnostia egin eta zirkuitu elebidunak martxan jarri.
9. Toki erakundeekin elkarlan hitzarmena berreskuratu. Erakunde publikoen hizkuntza politikak koordinatzeko eta optimizatze eta baliabideak partekatze helburuz. Udal euskara zerbitzuak zabaldu, dagoen edo sortu daitekeen eskaera aintzat

hartuz.

10. Helduen alfabetizazio eta euskalduntzera aurten premiazko diru-sail bat bideratzea. Euskaltegien egonkortasuna bermatuko duen elkarlan hitzarmena sinatzea. Hala, azken urteetako murrizketak konpondu eta euren lana egiteko beharrezko finantziario mailak berreskuratzeko.
11. Helduen euskalduntze eta alfabetizazio zentro publikoek jasotzen duten eskaera guztia erantzutea bermatzea.
12. Euskarazko hedabideen finantziario berreskuratze eta hobetu, baita zehaztutako graduan erabiltzen dutenena ere. Horretarako, hitzarmenak eta laguntza deialdiak egingen dira.
13. Finantziario publikoa jasotzen duten hedabideek programazioaren ehuneko bat euskaraz emititu beharko dute, deialdi bakoitzean zehaztuko dira ratioak.
14. Euskarazko hedabideetara nafar guz-

tien iristea bermatzeko neurriak hartzea.

15. Plan Estrategikoaren barruan, administrazioaren berezko jardueretan euskarazko nahiko eskaintza bermatzea kultura, kirola, aisia eta aisialdian. Baita gizarte erakundeek egiten dituztenei babesa ematea.
16. Arlo sozio-ekonomikoan euskararen sustapena eta erabilera laguntzea, eta enprestan eta bestelako erakundeetan euskara plan garatzeko diru-laguntza lerroa zabaltzea.
17. Euskara ezagutza handia eta erabilera orokortua duten espazioen funtzio estrategiko aztertu eta inguru horietan politika berezituak aplikatzeko aukera aztertu.
18. EAEko eta Iparraldeko instituzio eta erakunde publikoekin eta euskararen ikerketa eta sustapenera gizarte eragileekin (Euskaltzaindia eta abar) kolaborazioa normaldu eta hobetu.
19. Adostutako neurriak nahikoa finantziario eta giza baliabide izateko konpromisoa.



Nonerabili

VALCARCE

OLAZTI

0'06€ko deskontua litroko, erregai guzietan.

EDERNE ILEPAINDEGIA

LAKUNTZA

30€ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko zerbitzuekin, maki-laje ukitua doan.

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

XAGU

ALTSASU

%5eko deskontua, 30€tik gorako erosketa eginez gero.

LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegia eta irakurketarako liburuetan.

GOIKO LOREDENDA

ALTSASU

30€tik gorako erosketetan %10eko deskontua (Baratza eta garaiko loretan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

MARI JOSE ILEPAINDEGIA

ARBIZU

Garbitu, moztu eta apaindu 26€.

FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN

%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

EROSKI BIDAIK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotelako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai

Kendal
kafetegia-taberna

948 272 501
Ermitagaña kalea baxua Iruñea

EL PILAR
Taberna

Hamaiketakoak, bazkariak, afariak

Dastatu gure plantxa: gibela, giltzurruna, txapela, antxo...
948 17 67 26 • Asuncion plaza 2 Donibane auzoa • Iruñea

FLORES S.L.

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du
Txistor ekologikoa

948 460 499



Raf Atxuri

Herriak ez omen du barkatuko

Gure mundualdian ariketa zail, neketsu eta korapilotsurik bada barkatzearen ekintza da horietako bat. Zinez barkatzea, ez esate hutsa. Denok badauzkagu geure gogobarrenetan barkaezintzat edo ia barkaezintzat dauzkagun jende, oroitzapen eta egitateak. Maila pertsonal eta intimoan zaila bada barkatzea maila kolektiboan bes-

te hainbeste gertatzen da. Eta barkatze horren adieraztea? Zaila eta gogorra ezinbestean, askotan ez baita oso benetakoa. Eman dezagun zinez ez barkatzearena dela egoerarik naturalena. Egitate horreke garamatza, ordea, behin eta berriz lau haizetara ezintasun hau zabaltzera. Gurean "Herriak ez du barkatuko" esaerak erro-

sakonak egin zituen aspaldi. Nik dakidanez literaturara eraman zuen lehena Imanol Lartzabal kantaria izan zen bere bigarren diskoan eta ongi dakigu Imanolek berak kolko zornatsu hartatik edan zuela ausarki gerora. Ezen badirudi ez-barkatze horrek zernahirako eskubidea ematen duela eta mendekuaren mezulari dela.

Ez-barkatze kolektibo horren ondorio ankerrak erakusten dizkigute geure alde banatako kolonizatzaileek. Frantziak inoiz ez zion barkatu Haiti beltz eta muloari independentziaren asmo gauzatua eta haitiarren gaurko miseriak ez-barkatze urrun hartan du oinarria. Eta Espainiak? Espainiak bere buruari ere ez dio

barkatzen eta Goyak margotu bezala bere historia aztoragarria ez du jasaten.

Gurean ere banderizoen garaietatik gutxienez edan genuen kolko zital hartatik eta ondoriorik urragarrienak ezagutu ere. Honexegatik eta inoiz baino gehiago ahazturari lekuri eman gabe barkazioari zirrikitu bat zabal diezaiozun.

barrutik kanpora

Irudipen optikoa

Nori ez zaio gertatu noizbait tren geltokian, bi tren parez pare geldirik eta horietako batean egonik, halako batean kontrako norabidean doan tren abiaturik, eta, norbera dagoen tren geldirik egonik ere, mugitzen hasi dela sentitu.

Euskal Herriko bakegintza prozesuari dagokionez ere, batzuei antzeko zerbait gertatzen omen zaie; izan ere, haiek mugitu ez

eta urkoari eskatzen diote behin eta berriz mugimenduak egiteko edo azkartzeko. Horrelakorik ez gertatzeko modu bakarra dago, ikuspegia galdu gabe, norbera doan edo joan nahi duen norabidea argi izatea. Horren adibide bat da egin berri den Parisko Bake Konferentzia.

Norabidea, bakea lortzea; ikuspegia, gatazkaren bi aldeetara.

Eskakizun nagusiak lau dira, ETArek armagabetzea burura eramatea eta Frantziako eta Espainiako gobernuek hori modu adostu eta kontrolatua eginen dela bermatuko duen espazio egokia; biktima guztien aitortza, kalte ordaina eta asistentzia eskuratzeko pisuzko neurriak; espainiar eta frantziar estatuak Euskal Herriko gataz-

karen konponbidean inplikatzeari; eta, guri dagokigunez, zentzuzko epeak errespetatuz sortuko litzatekeen askatze prozesu batean, familien onurarako izan den hurbiltze eta elkartzeko prozesu baten bidez euskal presoak dispersioa amaitzea.

Maiatzeko hauteskunde ondoan, agertu den eszenatoki politiko berria esperantzagarria

da askorendako. Alderdikerien, protagonismo egarrien eta interes politikoaren ginetik, eta norbera egiten ez duena urkoari eskatu gabe, karguak hartu berri dituzten hautetsiei eskatzen diegu herri honek nahi eta behar duen konponbidearen tren azkarrago mugiarazteko neurriak har ditzatela.

Etixerat

hara zer dien

Haurrak maletetan migratzen dutenean...

Ceutara maleta baten barruan iritsitzen mutikoaren gertakizunak familia migratzaileen errealitate gordina utzi du agerian. Hortik gizarte mailan sortu duen zurrumbiltoa.

Familian migratzea gero eta zailagoa da. Gero eta traba gehiago jartzen baita horretarako. Horrek ikaragarritzko sufrimendua sortzen du familiaren baitan, afektibitatearen lotura haustea baitakar, apegoaren haustura, familia beraren haustura, azken finean.

Familian migratzeko eskubidea dena sari izatera pasatzen ari da, gero eta zentzugabeagoak diren derrigorrezko baldintzak (ekonomikoak, kulturalak, hizkuntzari dagozkionak...) betetzen badira behintzat.

Duela gutxi "barregarri" suertatzen den beste baldintza bat gehitu da: migranteen gizatasun maila ebaluatzea. Nola ebalua liteke gizatasuna, ordea? Gizatasunetik ba al du paperak lurrera botatzen dituenak? Edota zeharabideak izanagatik, kamioak beste nunbaitek gurutzatzen dituenak?

Gainera proposamen hauek planteatzen ari dira, familia migratioak nabarmenki gutxitu diren garaian.

Horrek adierazten du gure gizartearen migratioaren aferak jorrazteko modua erabat deshumanizatu dagoela, dela.

Gutxitan hartzen da kontuan migratzaileen alde emozionala, pertsonala, afektiboa, humanoa. Orokorrean arlo ekonomiko, demografiko eta estatistikotara

mugatzen da (horrek migratioa bere osotasunean adierazten ez badu ere).

Giza eskubideen kontra joateaz gain, lortu nahi den gizatasunaren kontra doaz neurri hauek denak. Izan ere familia artean egotea da migranteen integrazioa bermatzen duen zutabeetako bat, arlo afektiboa osorik edukiaz diskriminazioa eta bazterkeriaren prebentziorako biderik eraginkorrena. Apegoa superbizitzarako oinarritzko instintoetako bat baita.

Guraso etorkin askok adierazten duten moduan, familiengandik banatuta bizitzeak, egoteak, ikaragarritzko sufrimendua dakarkie: "dena seme-alabengatik egiten dugu, baina haiek gabe"...

Bego Zestau
Immigrazio zerbitzua

objektibo tik



Sakana urtzen:

Azken egunotako bero zakarrek ez dute etenik. Gaurkoan beste bero olatu bat iritsiko omen da eta hurrengo egunetarako ere, beroa nagusi. Aurreko urtean San Ferminetara joateko txamarra eta neguko arropa behar omen zirela egiten zen txantxa, hotza baitzen nagusi. Aldiz, aurtentzen zer? Kantuak dioen bezala media eta kaltetinarekin soilik jo beharko dugu Iruñera?

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuzdeta

SAKANA

Bidelagun elkarteak lanean

Errotainzaldi ibilbideak enpresaren jarduna bertatik bertara ezagutu ondoren, Urdiaingo errotan batzarra egin zuen Bidelagun elkarteak. Sakanako turismo eragileak biltzen ditu elkarteak. Aurrera begirako egin beharrekoak zehaztu zituzten, betiere, "Sakanan turismoa mugitzeko asmoz" Alfonso Nuin Cartujo elkarteak presidenteak azaldu digunez.

Bileran elkartzirenak eskaintzen paketeak nola egin aztertu zuten. Nuinek azaldu digunez, alojamenduarekin batera astebururako bizpahiru esperientzia osatzen duten paketeak eskaintzeko formulak aztertzen ari dira. Eskaintza horiek udazkenerako prest izan nahi dituzte.

Bestetik, uda ondoren Bidelagun elkarteak kideendako prestakuntza saioak izanen dira. Alde



Bidelagun elkarteak kideetako batzuk Urdiaingo Errotainen eskaintza ezagutu zuten.

batetik, Sakanako historia eta natura nolakoa den ikasiko dute. Eta, bestetik, ezagutza hori teknologia berrien bidez nola zabaltzea eta Sakanako markarekin zabaldu trebatuko dira. Hirugarren ikastarora, argazkilaritzari buruzkoa,

sakandar guztiei zabalik izanen da. Prestakuntza saio horiek Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin antolatuko du Bidelagunek.

Azokak

Diru-laguntza bat tarteko Bilbo-

ko turismo azokan izan zen Bidelagun elkarteak Sakanaren eskaintzaren berri emateko. Asteburuetan dituzten bezeroak inguruko probintzietakoak direnez, gertuko turismo azoketan presente egotea interesgarri jo du Nui-

36 kide

Gaur egun Bidelagun elkarteak dituenak. Joan den urte akaberan 16 ziren. Elkartearen izena eman nahi duenak 680532232 (Alfonso) telefono zenbakira hots egin dezake.

nek. Zehaztu digunez, oporretara jendea urrutia gotik etortzen da.

Halako azoketan Sakanaren berri emateko esku-orriak egiteko diru-laguntza ere jaso du. Web orria eraberritzeko laguntza ere jaso dute eta horri ekinen diote aurki. Bestalde, Sakanako Mankomunitateari aldizkari bat egiten lagundu diotela aurreratu digu Nuinek. Aldi berean, Nafarroako Gobernuak ibarrari buruz duen turismo informazioa aztertzen ari dira Bidelagun elkarteak egon litezkeen akatsak zuzendu edo informazioa aberasteko.



Iruñeko festetarako garraio publikoa



San Fermin festetara garraio publikoan joan behar duenak autobusa eta trena ditu aukeran. La Burundesak enpresak jakinarazi duenez, Iruñeko festak irauten duten bitartean, garilaren 6tik 14ra, gauerdiko zerbitzu berezia izanen da, Iruñeko autobus geltokitik abiatuta Ziordia arte. Bestetik, autobusen enpresak jakinarazi du, 7tik 14ra arte, 20:00etako zerbitzua kendu egingen dela eta 21:00etan eskainiko dela. Renfek, bestalde, Iruñean jatorria eta helmuga duten distantzia erdiko tren zerbitzuak indartu egin ditu eta garilaren 4tik 14ra 9.900 eserleku gehiago eskainiko ditu.



Berrenoako galtzada berreskuratzen

Atzerriko 11 gazteekin batera, larunbatean, Etxarri Aranatz eta Bakaiku artean auzolana egingen da

Atzeritik etorritako 11 emakumeen talde boluntarioa hasi da atzo Berrenoako galtzada berreskuratzeko lanetan. 10:00etatik aurrera ekin diote aitzurrekin eta palekin galtzada gainean zegoen lurra, orbela eta bestelakoak kendu eta galtzada agerian uzteari. Urbijotzenden zubitik Santatriteira doan galtzada zatian aritu dira lanean. Aurretik, pasa den astean, etxarriar talde batek eta udaleko langileek, auzolanean, sasi handienak kendu zituzten, lehen garbiketa eginez.

Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterola Matxainek esan digunez, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendin eta Urdiaingo, bakoitzean, bi egun eta erdi ariko dira lanean boluntarioak.



Lurraren eta orbelen azpian galtzada azaleratu dute. UTZITAKOIA

"Toki interesgarrienak agerian uzteko lan egingen dute". Manterolak gaineratu duenez, "asmoa,

haiek galtzadaren berreskurapenari lehen bultzada ematea da eta ondoren herrietako boluntario tal-

deekin segida ematea".

Auzolanak

Bihar eta hurrengo asteko larunbatean auzolanak izanen dira. Biharkoan Etxarri Aranatz eta hurrengoan, zehaztua ez badago ere, Urdiaingo izan liteke. Udalak eta Agentzia gazte asanbladekin eta kintoeekin harremanetan jarri dira, atzerriko gazteekin batera haiek ere galtzadaren berreskurapenean aritzeko. "Haiekin harremanetan jartzen bertako gazteek ingelesa praktikatuko lukete eta, aldi berean, bertan dugunaren balioa ikusiko lukete".

Manterolak, bestalde, gogora ekarri du Berrenoako galtzadak Sakanako eta kosta lotzen zituela. "Kostarako bidean, mandazainak joan etorrian ibiltzen ziren basotik barna. San Joan baleontzia egiteko ere bide hori egin zuten enborrek".



%10 eko
deskontua

emakumezkoen azpiko arropan
Uztailaren eta abuztuaren zehar.

SABANDO ETXARRI ARANATZ

**DESKONTU
ZUZENAK**

Moztu eta dendan trukatu



ESKAINTZAK

Avene eguzkitako kremetan,
lima elektroniketan,
Vichy desodoranteetan,
Roc antizelulitikoan,
Eucerin hidratatzailean.

FARPLUS FARMAZIA OLAZTI

SAKANAKO DENDARI, OSTALARI ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

Izurdiaga

Trenbide-pasabidea kentzeko lanak agorrilean hasiko dira

Sakanan kendu beharreko azken trenbide pasa da Izurdiagakoa

Excavaciones Fermin Osés enpresak eginen ditu Izurdiagako trenbide-pasabidea kentzeko lanak. Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez lanak agorrilean hasita aurreikusten da eta haiek despeditzeko dozena bat hilabete izanen du enpresak. Lanek 2,6 milioi euroko aurrekontua izanen dute.

Lanak

NA-7010 errepideko 21,580 kilometroan dago Izurdiagako trenbide-pasagunea. Hura kentzeko lanak 21,750 kilometroan hasiko dira, San Juan auzora iritsi aurretik, errepide-zati berria hasten den lekuan eta, guztira, 1.234 metroko luzera edukiko du, 3,50 metroko zabalerakobierreko galtzada eta 0,50 metroko bazterbide-



Urte bat barru trafikoak ez du trenbide-pasabidea erabili beharko.

ak alde banatan. Egun hor dagoen bidera biribildune baten bitartez lotuko da.

Bidea goiko pasabide baten bidez zeharkatzen da eta, behin zeharkatutakoan, saihesbideak

berriro ere bat egingo du errepidearekin A-15 errepidearen azpian dagoen beheko pasabide baten inguruan; hor, konexiorako amaierako biribildune bat planteatzen da.

357 ibilgailu

Eguneko batz besteko trafiko intentsitate hori du Izurdiagako trenbide pasak.

Bukatzeke, proiektuak oinezkoentzako metalezko pasabide bat (24,55 metro luzekoa, zoru ez labaingarria eta ekintza bandalikoan aurkako hesia edukiko dituen) eraikitzea ere aurreikusten du, trenbide-pasabidea ezabatu den leku berean eta, baita, ingurua hesiz ixtea ere. Bi biribilduneek 4 metro zabaleko bierrei, 0,50 metroko barneko bazterbidea eta metro bateko kanpoko bazterbidea edukiko dituzte. Bestalde, goiko pasabidea 20 metro argiko bao bakarrekotuzia izango da.

SAKANA



Aingerua gurtzen. NEREA MAZKIARAN

Haurrak Aralarko goiaingeruari hilaren 19an aurkeztuko dizkiete

Aralarko santutegian daude izen emate-orriak

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak haurrak Aralarko goiaingeruari aurkeztu eta haren musua jasotzeko ekitaldia antolatuko du. Hamabigarren edizioa izanen da aurtengoa. Edozein adineko haurrei zabalik dagoen ekitaldia dela nabarmendu dute kofradiatik. Ekitaldia hilaren 19an izanen da, igandean, meza nagusiaren barruan. Elizaren egungo araudiak haurrak euren parroketan bataiatu behar direla dio. Guraso askok santutegierikiko lotura handia dute eta hura seme-alabei transmititzeko eta mantentzeko modua da haurren aurkezpena, kofradiatik azaldu digutenez. Garilaren 12a baino lehen izena ematen dutenek ekitaldiaren ondoren haurren izen-abizenak, San Migelen lagun izendapena duen eta haren bizi guztirako babeska eskatzen dion pergaminu bat jasoko du. Hilaren 12aren ondoren izena ematen dutenak edo ekitaldira bertara joaten diren haurrek pergaminoa jasotzera Aralarko santutegira igo beharko dute agorrilaren 2tik aurrera.

Iturmendi

Etxeko artean mustu dute eskola

2014ko irailaren hasieran eraikin berriko ateak ireki zituen Iturmendiko Arrano Beltza herri eskolako. Lehenengo ikasturtean 19 ikasle aritu dira han ikasten. Irakasleak oso gustora daude instalazio berriekin.

Ikasturte bukatzearekin batera, garagarriaren 20an, herritarren artean mustu dute eraikin berria. Iturmendiko alkate Victoriano Gabirondok eta eskolako zuzendari Irene Arretzek moztu zuten zinta. Bi xanpain botila

ireki, ohorezko aureskua dantzatu eta trikitiaren doinuek alaitu zuten ekitaldia. Nicolas Arbizuk emandako azalpen eta argazki zaharren bitartez, herriko eskolari buruzko ibilbide historikoa egin zuten bertaratutakoek. Ondoren udal ordezkariak prestatuko paella eta entsalada dastatu zuten eskolako aterpean. Eskolako irakasle, ikasle, ikasle ohi, guraso, herritar eta udal agintariak, 80 lagun elkartu ziren bazkarian.



Eskola berrian ikasi duten hiru ikasle. ARTXIBOA

FESTAK

Urdiain:

'Sanpedruak'

Bost festa egun aurretik

>> Garilak 4, larunbata

12:00etan Etxajua eta festen hasiera Sakaranga txarangarekin.
13:00etatik 15:00etara Kuadrillen arteko kalderete txapelketa, UGAK antolatua.
17:00etan Haur kategoriatikozko bizikleta lasterketa eta ginkana.
18:00etan Herriko gazteen arteko pilota partiduak. UGAK antolatua.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.
22:00etan Euskal Presoen aldeko afaria.
00:00etara 4:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

>> Garilak 5, domeka

10:30ean Ardo banaketa San Pedroko hariztian.
12:30ean Meza nagusia San Pedroko baselizan.
14:30ean Bazkaria San Pedroko zelaietan.
17:00etan Zortzikoa.
19:00etan Salbea eta herrira itzulera.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Orotz

taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etatik 02:30etara Dantzaldia Orotz taldearekin.

>> Garilak 6, astelehena

10:00etan Gosaria alondegian, Tintinurririk elkartek eskainia.
12:00etan Meza
12:30etik 14:00etara Bixente Setoainekin dantzaldia.
14:30ean Jubilatuen bazkaria frontoian, ondoren Bixente Setoainekin dantzaldia.
15:00etan Gizonen bazkaria, Baralde.
18:00etan Uretan blai ikuskizuna, Tdiferencia antzerki taldea.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.
24:00etatik 03:00etara Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

>> Garilak 7, asteartea

10:00etan Gosaria alondegian, gizonen eskainia.
12:00etan Herriko dantzari txikiak.
13:00etan Elorri folk taldea plazan.
14:30ean Emakumeen bazkaria, Goizkorri txarangak girotua.

17:00etan Junior mailako bizikleta lasterketa: II Urdiango Saria.
19:15ean Txinito Kudeiro musika taldearen emanaldia.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Gaubela taldearekin.
00:30etatik 03:30era Dantzaldia Gaubela taldearekin.

>> Garilak 9, asteazkena

10:00etan Gosaria Aitziber elkartek eskainia.
12:30ean Bordetxe abere zirkoa.
14:30etan Herri bazkaria.
17:30ean Etxez etxe Irunberriko txarangarekin.
16:30etik 19:30era Hainbat adinetarako puzgarriak, zezen mekanikoa eta bizikleta eroen zirkuitua.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Drindots taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:30ean Bertso afaria frontonien, UGAK antolatua.
00:30etatik 03:30era Dantzaldia Drindots taldearekin

Egunero, eguerdi eta iluntzean, ardoa banatuko da.

SAKANA



Hau kalda!

Bero handia, itsaskorra izan dugu azken egunetan. Eguraldi iragarpenaren arabera kalda, sargoiyek edo fafarak segituko du. Termometroak ezohikoak diren mailak hartu dituzte azken egunetan. Asteartean Sakanan honako maximak hartuziren: Irurtzunen 37,5, Etxarri Arantzen 26,7 eta Altsasun 35. Sargoriak ibarreko igerilekuak bete ditu. Bestalde, abeltzainei belarra moztu eta biltzeko lana aurreratzen lagundu die.

Altsasu



UdaGazten plaza libreak daude

12 eta 16 urte arteko gazteei zuzendutako hiri-udalekua antolatu du Altsasuko Udalaren Gazteria Zerbitzuak. Garilaren 13tik 24ra izanen da etagazte parte-hartzaileek makinabatekitaldiarekin gozatzeko aukera izanen dute: zaldi irteerak; gau kanpaldia San Pedron; hondartzara txangoa; sukaldaritza, dantza eta bestelako tailerrak; gymkana; igerilekua; bizikletan ibilbideak... Gazteria zerbitzuak jakinarazi duenez, garilaren 6ra arte izanen da izen ematea zabalik. Intxostiapunta gaztegunetik pasa behar da horretarako. 20 euro ordaindu beharko dira matrikulagatik. Informazio nahiduenak 948 564 785 telefono zenbakira hotsegin edo gazteria@altsasu.net e-posta helbidera idatzi dezake.

» Etxarri Aranatz /SAKANA

Lur emate duina

Gerrakoan Urbasako saroiak fusilatu eta lezera bota zituzten bederatzigizonek hezurdurei hant bertan eman zieten lur senideek igandean: Clemente Araña, Paulo Garciandia, Andres Gonzalez, Antonio Maiza, Narciso Artola etxarriarrak, Balbino Garcia de Albizu Asurabarrena, Gregorio Garcia Larranbeberre eta Balbino Bados Garcia ameskoarrak eta identifikatu gabeko hezurdura

Hiltegia hilobi bihurtuta. Halaxe laburtu zuen eraildakoetako baten iloba den Balbino Garcia de Albizu Jimenezek igandeko ekitaldia. Berak abiatutako ikerketari esker han erail zituzten pertsonak identifikatzea lortu zen. Senideek egun hunkigarria eta emozioz betetakoa bizi izan zuten.

Informazioa lehenik

Eraildakoen familiakoen lehen hitzordua Amekoako eskola publikoan, Zudairen, izan zen, 9:30ean. 150 bat senide elkartu ziren. Haiekin batera zeuden gonbidatuak eta ikerketako kolaboratzaileak izan ziren ere. Joxe Urbizuegarraren hezurdurari herrian lur eman zioten eta, horregatik, haren senideak ez ziren Zudairen izan.

Ikastetxeko topaketan Garcia de Albizuk gertaeren berri eman zuen. Fusilamenduen pasarte. Eta 50eko hamarkadan lezera jaitzi zen Eugenio Roa Lizarrako espeleologoak han opatutakoa: "ikusitakoarekin oso gaizki pasa zuen. Entzuna zuen, baina espero baino gorpu gehiago opatu zituen". Informazio horrekin eraildako Balbino Garcia Usarbarrenaren alaba Mercedes ezagutzen zituen beste bi eraildakoen (Gregorio Garcia eta Balbino Bados) senideekin harremanetan jarri zen eta lezea ixtea eta haien izenekin hilarria jartzea erabaki zuten.

2010eko gertakariak identifikazio prozesuak azkartzea ekarri zuten. Amekoako lau udaletan mozioak onartu ziren eta 2012an eraildakoei lezean bertan omenaldia egin zitzaion. Aldi berean, iloba ikerlariak eta Eulateko Udalak gorpuak ateratzeko eskaerak egin zituzten. Ikerketa lanean aritu zirenetako bat Jose M^a Jimeno Jurio izan zela gogora ekarri zuen

Garcia de Albizuk.

Aranzadi zientzia elkarteko Paco Etxeberriak eta Lourdes Herrastik zuzendutako taldea 2013ko martxoan hasi zen lanean. Igandean, proiektio baten bidez, senideei identifikazioa nola egin zen azaldu zieten. Historia ikerketa lanak identifikazioa erraztu ziela nabarmendu zuten Aranzadiko kideek.

Aranzadikoek jaitzi zirenetik, lezean opatu zutenaren eta txosten antropologiko forentsearen berri eman zuten. Guztiek buruan tiro bana zuten; bik bina tiro eta beste batek bularrean, antza, autotik jaitzi nahi izan ez zuelako. Kontaketa gogorra izan zen senide askorendako, hezurduren irudiak lezean ikusteko aukera izan baitzuten. Jakin ere egin zuten eraildakoak lezera bota ondoren gorpuez elikatze hara bizirik zeuden bost txakur jaitzi zituztela hiltzaileek. Horregatik, hezurak lezean barna sakabanatuta opatu zituztela argitu zuten Aranzadikoek. Guardia Zibilak leherrazari zuen granada bat eta objektu pertsonal gutxi batzuk ere opatu zituzten.

Lezera

Zudairen eraildako bederatzien gorpua kutxa barruan zeudela ikusi zituzten senideek. Hango une gogorren ondoren, haiek hartuta, guztiak Urbasako saroi-ko eraildakoen lezera joan ziren. Eguerdian senideek hilkutxak lezearen ondoan jarri zituzten eta haiez despeditu ondoren Aranzadiko kideei pasa zizkieten. Plastikozko poltsa banaren barruan zientzia elkarteko kideek hilkutxak, banaka-banaka, lezera jaitzi eta toki egokian kokatu zituzten. Lezea itxi aurretik senideek loreak bota zituzten eta kantatu zuenik ere izan zen. Bat-bateko ekitaldi xumea izan zen. Hiletan hildakoei duintasunez lur eman ondoren haien 50 bat senide elkarrekin bazkaldu zuten. Guztiek Garcia de Albizurrendako, "egindako lanagatik eta lortutako guztiagatik", esker oneko hitzak besterik ez zituzten izan.



AMAIA URKIJOK



JOSU IMAZ

Senideak lezearen inguruan elkartu ziren ahaideei lur eman aurretik.

Izen-abizenak

Urbasako saroiak Amekoako hiru hildakoen izen-abizenak dituen hilarria dago 50eko hamarkadatik. Hura jartzea estatuan memoria historikoko lehen ekitaldietako bat izan zen. Orain haren ondoan falta diren hildakoen izenak dituen antzeko beste hilarri bat jarriko dute senideek.

Saroi-ko lezean agertutako hamar pertsonetatik bakarrik falta da identifikatzeko. Hari izen-abizenak jartzeko Garcia de Albizuk eta

Amaita Urkijok ikerketa lanean segitzen dute. Urkijok esan digunez, "historia ikertu, gertakariak aztertu eta zein izan daitekeen jakin nahi dugu". Bere beste aitona ere eraila izan zen ere. Otsoportillon egon liteke eta, horregatik, han erail zituztenak identifikatzeko lanean segitzen dute. "Prozesu bera errepikatuko litzateke". Dozena bat sakandarren gorpuak opatzeko daude oraindik: urdiaindar bat, sei altsasuar, hiru olaztiar eta bi ziordiar. Arabako Lautadako eta Iruñekoren bat egon daitezke ere Otsoportillon.

Faktura

Eraildakoak identifikatzeko DNA probak egin zituzten. 10.500 eurokoa da faktura. Memoria Historikoaren Legearen arabera Nafarroako Gobernuak ordaindu behar ditu identifikazio gastuak. Baina senideek eta Amekoako, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olatzagutiko udalek aurreratu dute dirua. Urkijok espero du gobernu berriak bere egitea. "legea gauzatzearen alde hainbatetan azaldu baitira".

Hitzordua

Senideek eta Etxarri Aranazko Udalak, 1980az geroztik, iraileko lehen igandean omenaldia egiten dute Otsoportillon. Erail zituzten datatik gertuen dagoen jai-eguna aukeratu zuten horretarako. Aurtengo omenaldia, 35. edizioa, berezia izanen da Otsoportillon zeudela uste zirenak saroi-ko lezean identifikatuta daudelako. Urkijok esan digunez, "Otsoportillo Urbasako eraildako guztien sinboloa da". Oraindik zehaztu gabe badute ere, aurtengo omenaldia bi lezeen ahoan egingen dela pentsa du Urkijok.

Zabalkundea

Garcia de Albizu *Conociendo el pasado amescoano* lanaren bosgarren liburukia prestatzen ari da: *El matadero de Urbasa*. Argitaratzen denean Urkijok haren aurkezpen bat Sakanan egin nahiko luke. Interesa ere azaldu diete. Etxarri Aranazko Udaletik dagoeneko horretarako interesa azaldu du.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxarri Aranatz

nere cenoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

» Lakuntza

Lan istripuan hila

Ostiralean, 12:35 aldera, Sakana Kooperatibako teilatuan mantentze lanak egiten ari zen langile bat teilatutik erori eta hil egin zen. Corellako 43 urteko gizona da zendentakoa. Espartza Galarko Gogor SA enpresarendako lan egiten zuen eta egituren mantenuan eskarmentu handia zuen. Antza,

kooperatibak enpresa mantentze lanetarako kontratatu zuen eta, horregatik, ari zen Lakuntzan lanean.

Hildakoa 15 metroko altueratik erori zen, buruan eta gorputzean kolpe handiak hartuz. Etxarri Aranzko zaintzako mediku taldeak ezin izan zuen ezer egin. Larrial-



Hain larria izan ez zen istripu baterako ere helikopteroa bidali zuten. ARTXIBOA

26 hildako

Euskal Herrian aurtan lan istripuan hildako pertsonak. Ibarrean heriotzak ekarri zituen azken bi lan istripuan 2008an izan ziren.

di zerbitzuek suhiltzaileak medikalizatutako helikopteroa eta Foruzaingoa ere bidali zituen ere. Azken horiek arduratu dira ezbeharraren ikerketaz.

» Arruazu

Askapenako kideen kontrako epaiketa lastailaren 19an hasiko da

Bi aste iraunen du eta azaroaren 2rako bukatzea aurreikusit du. Bost epaituen artean Aritz Ganboa De Migel arbazuarra dago

Espainiako Auzitegi Nazionaleko 1. aretoak lastailaren 19a eta azaroaren 2aren artean Askapenako bost kide epaituko ditu, Aritz Ganboa De Migel arbazuarra barne. ETArilaguntza emateagatik 6 urteko espetxe zigor eskaerari egin beharko diote aurre. Atxilotu zituztenean ETAko kide izatea leporatzen zieten. Horretaz aparte, Askapenaren, Bilboko Askapeña konpartsa eta bidezko merkataritzan ari den Elkar-truke enpresaren ilegalizazioa eskatuko da epaiketan.

Auzibidearen atzean erabaki politikoa ikusi dute Askapenako bost kideek. "Estatuak bere erabakiak bere bitartekoan bidez gauzatu zituen eta horietako bat auzitegi berezi bat da, Euskal Herriaren kontra eraikia dagoena". Horregatik, ez dute espero "justizian oinarritutako kolpe bat, baikik eta oinarri politikoa dituen kolpe bat". Espero duten bakarra absolutioa da, "ez dugulako bes-



Elkartasun bazkariaren aurretik bideo emanaldia izan zen.

te aukerarik onartzen. Gure militantzia politikogatik epaituko gaituzte eta hain zuzen ere hori aldarrikatzerajoenengara". Askapenako kideen egoera berean, epaiketa zain, sakaraz gehiago dardela ere gogorarazi du Ganboak.

Babes sarea

Prozesutik elkartasun internazionalista indartuta ateratzea

bilatuko dutela jakinarazi digu Ganboak. Bestalde, nabarmendu du Askapena erakunde internazionalistaren ildo politikoa elkartasunaren bidetik aurrera egitea dela: "herrien arteko elkartasuna behar da, baina, baita giza talde eta pertsonen artean ere". Horretan oinarrituta bost epaituekiko eta Askapenarekiko elkartasun gisa antolatu ziren

larunbatean Arruazun. Ehundik gora pertsona elkartu ziren herri bazkarian.

Arbazuarrak aurreratu digunez Herriak Libre dinamika mar txan jarriko da Euskal Herrian eta nazioartean (Euskal Herriaren Lagunak dinamikaren bidez). "Gu internazionalistak izateagatik epaituko gaituzte. Bada, herri honek estatu espainolaren iza-

Atxiloketa

Ganboak gogora ekarri duenez, "gu atxilotu aurretik hedabideak urteak zeramatzen Askapenaren jardueraren kriminalizazio mediatikoa egiten. Ohikoa den bezala, kriminalizazio horren ondoren polizia gaeuz iritsi zen. ETAko kide izateagatik atxilotu gintuzten". Denbora pasa ahala Espainiako estatuaren helburua Askapena lege kanporatzea zela ikusi zutela esan digu. 2010eko irailaren 28an atxilotu zuten Ganboa. 3 egun inkomunikatuta egon ondoren Soto del Real espetxean sartu zuten. Han bi egun eman ondoren Navalcarneroeko espetxera eramatu zuten. Hiru hilabetez egon zen preso, beste atxilotu batzuk 6 egon ziren. Bera bezala gairontzeko auzipetuak behin behinean preso egon ziren. 60.000 euroko fidantza pagatu ondoren, epaiketa zain, baldintzapeko askatasunean daude.

ra inperialista salatu eta epaitu egingen du". Ganboak sakandarrei dinamika horrekin bat egiteko eta "aktibatze" gonbitea luzatu die.

» Altsasu

Martinez epaiaren zain

Fiskaltzak agintearen kontrako atentatutik erresistentziara jaitsi zuen salaketa eta abokatuak absolutioa eskatu zuen. Epaiak hilabete honetan edo irailtik aurrera jakin daiteke, agorrilean epaitegia itxita baitago

Duela bi urteko Donostiako herri harresian parte hartzeagatik, Edurne Martinez Donostian epaitu zuten atzo. Hari elkartasuna adierazteko autobus bete joan zen Altsasutik. Epaiketa hasi aurretik altsasuarrek eta beste hainbatek orduerdiko kontzentrazioa egin zuten Donostiako auzitegiaren aurreko aldean, *Muntai polizial gehiagorik ez, euskal gazteria aurrera!* lelopean.

Kontzentrazioa despedituta auzitegira sartu ziren. 10:40rako aurreikusia zegoen epaiketa eta 13:00ak aldera hasi eta 15:40ak aldera despeditu zen. Altsasua-



Epaiaren aurretik Donostiako auzitegian kontzentrazioa egin zuten.

rrak hasiera batean 15 hilabeteko espetxe zigor eskaera eta isuna eskaerari aurre egin behar zion, Ertzaintzak atxilotutakoan agintearen kontrako atentatua leporatu baitzion. Baina epaiketan fiskaltzak eskaera aldatu eta erresis-

tentzia leporatu zion (10 hilabeteko espetxe zigorra eta isuna).

Defentsako abokatuak Martinezeko absolutioa eskatu zuen. Defentsak bi lekuko aurkeztu behar zituen. Haietako batek ezin zuenez, epaiketan bertan beste

lekuko bat aurkezten saiatu zen, baina fiskala kontra agertu zen eta ezin izan zuen epaiketan parte hartu. Defentsak, bestalde, Martinezen atxiloketa erakusten duen bideo bat aurkeztu zuen proba gisa. Hark eta lekukoaren adierazpenek agerian utzi zuten ertzainaren deklarazioaren kontraesanak. Epaiketa epaiaren zain gelditu da.

Kontzentrazioa

Epaiaketa salatzeke Edurnekin bat dinamikak atzo arratsalderako kontzentrazioa deitu zuen Altsasun. *Elkartasuna ez da delitua! Herria zurekin!* lelopean Donostiako herri harresian atxilotu zituzten bi gazteen kontrako epaiketa "muntai polizial eta mendeku politikaren ondorio garbia" direla salatu zuten. "Edozein izan zitekeen atxilotua. Eta ondorengo herri harresietan ere akusazio berarekin beste hainbat atxilotu egon dira". Dinamikak euskal gazteriarren "kriminalizazio" saioak salatu zituen.

» Etxarri Aranatz

Merkatu soziala bueltan

Igandean, 11:30etik 14:30era, Zorri Azoka Etxarri Aranatzko plazan

Zorri Azoka bueltan da, hileko aurreneko igandeko hitzorduari hutsik egin gabe. Artisautza, barazki ekologikoak, bertako produktuak, erakunde inforazio eta zabaltze gunea, musika edota artea opatuko ditu igandean Etxarri Aranatzko plazatik pasatzen denak. Gainera, etziko edizioan Kurukun txontxongiloak artista gonbidatua izanen da. Ohi bezala, azokan trakerako txokoa izanen da. Han jendeak eramandako arropa, liburuak edo diskoak trukatzeko dira. Zorri Azokan parte hartu nahi duenak zorriazokainfo@gmail.com helbidera zuzendu beharko du.



SAKANA

Gobernuak sua pizteko arriskuaz gaztigatu du



Temperatura handiek suteak pizteko arrisku izugarri handia dela ohartarazi dute Nafarroako Gobernutik. Horregatik, egun hauetan bilketan lan egiten ari diren nekazari eta erretan handiagoa eskatu die, baso-sutetik piztu ez dadin. Nafarroako Larrialdi Agentziak gomendatzen du fardoak egiteko makinek eta uzta-makinek urez betetako bisulfatagailu edo kantinplora eraman dezatela 15 litroko tanga batekin gutxienez, hasierako neurri modura erabiltzeko, suteran bat pizten bada ere.

Herritarrendako gomendioei dagokienez, Nafarroako Larrialdi Agentziak azpimarratu du ez dela zigarro-muturrik, pospolorik edo arriskuko beste objekturik bota behar. Hondakinak ere ezin dira utzi xede horretarako diren gunetatik kanpo. Beharrezkoa ez bada motordun ibilgailuekin ez ibiltzea baimenduta dauden lekuetatik ibiltzeko gomendatu du ere.

SUA EGITEKO MURRIZKETAK
Garagarriaren 15etik irailaren 30era indarrean dira nekazaritza eta basoko lurretan udan sua erabiltzeko moduari dagozkion murrizketak, suteak pizteko prebentziozko neurri modura. Sakanari dagokionez, besteak beste, sua aisialdirako erabili daiteke soilik horretarako egokitutako tokietan (harrizko barbakooak).

SAKANA

Sakanako Euskalgintzaren Bilgunea ikasturte berrira begira

Irail akaberan edo lastailaren hasieran elkartuko dira Sakanako Euskalgintzaren Bilguneako (SEB) kideak. Ikasturtea hasia dela, bilera horretan eragile euskaltzale bakoitzak 2015/2016 ikasturterako dituzten lanildoak azaldu eta SEB modura elkarrekin zerbaitekin egin dezaketen aipatuko dute. Bestelako gaiak ere osatu dezakete gai ordena.

SEB joan den urte akaberan sortu zen. Sakanako euskalgintzaren bilgunea baten beharra ote zuen gogoeta egiteko bilera deialdia egin zen Etxarrin. "Helburua eskualdean euskararen aldeko borrokan ari diren talde, eragile eta norbanakoak elkartu eta esperientzia trukaketa eman eta elkar-

ren berri izatea genuen helburu, bakoitzaren erakundearen egoera hurbiletik ezagutzuz". Lehen bilera eragilearen nondik norakoak azaldu ziren.

Euskalgintzak Sakanan dituen indarguneak eta ahulguneak aztertu zituzten eta elkarrekin lantzeko moduko lanildoak antzeman zituzten. Saretu beharra ere argi gelditu zen eta horrela sortu zen SEB. "Indargune eta komunikazio kanal zabala sortzea lortu dugu, eskualde osoa hartzen duena, eta oraindik ere kontaktu berriak saretuko ditugu bertara".

Bigarren bilera
Otsailaren 21ean elkartu zen SEB



Bilgunearen aurreko bilera batean elkartutako sakandarrak.

bigarrenez eta Kontseiluak apirilaren 25erako kanpainaren berri eman ziren. Kanpaina ezagutzera emateko Sakanarako kartel berezituak egin ziren. Udal hauteskudeei begira dekalogo bat osa-

tu zuten alderdiei bidali zieten eta EH Bilduren erantzuna besterik ez zuen jaso. Hauteskudeen ondoren beste bilera bat egitekoak ziren, baina ikasturte berrian egitea hobetsi dute.

Altsasu

Haurrak auzo-konposta egiten

Aisiaz Blai programan parte hartzen duten haurrak izanen dira auzo-konposta egiten duten lehen altsasuarrak

Txantxari Udal Ludotekak antolatutako Aisiaz Blai programa, orain arteko Udan Euskaraz, asteazkenean jarri zen martxan. Aurtun ludotekak Batutaren eta Sakanako Mankomunitatearen laguntzaz haurrendako birziklatze tailerra antolatu du. Hari hasiera emateko, atzo Mister Birzi (Javi Bergara) eta Pantxika (Ainhua



Juaniz) izan ziren haurrekin eta hondakinak behar bezala birziklatzeko azalpenak eman zizkietenak. Baita auzo konpostagailu bat ere. Adin talde bakoitzak edukiontzi txiki urdin, hori eta gris bana

jaso zuen, papera eta kartoia, ontziak eta errefusa bana ditzaten. Haur guztiak artistak direla aitortu zuten eta akaberan jasotako hondakinekin mosaiko bat egiteko asmoa adierazi zuten.

Mozal legearen kontrako protesta



Garilarekin batera indarrean da Herri-tarren Segurtasun Legea edo Mozal Legea. PPren legearen kontra protesta egiteko asteazkenean arratsaldean 40 bat pertsona kontzentrazioa egin zuten Altsasuko udaletxe parean. Funtsezko eskubideak urratzen eta murrizten dituela salatu zuten.

Eskerririk asko babesle eta laguntzaile guztiei eta bereziki Etxarriko jendeari!

BABESLEAK:

- ETXARRI camping
- SAKANA
- xalok CENTRO ESTETICO DEPORTIVO Y NUTRICIONAL
- ETXARRI ARANATZ UDALA

LAGUNTZAILEAK:

- BERGAIN NEKAZAL ETXEA
- TRINERKARR
- Arbizu
- LABORAL kutxa
- maksa
- K
- KULUM kulumsport.com
- INDOX
- FONTANERIA CRIEFRECCION Y GAS
- Noticias
- POKE
- RENAULT
- INTER SPORT
- EMBUTIDOS ALDAZ HESTEKIAK
- MURUZABAL
- aldaba S.L.
- ALEJO
- MENDINUETA
- FERRERIA BERRIANZ
- LISA KIROLAK
- JAMSAR S.L.
- EMNECO
- EUSKO JELA
- Hartzabal
- Maderas Ijurco s.l.
- IRATXO
- ITYRRI
- EDER
- LABARETA ELKARTEA
- URKIBENA
- ORLEGHY
- JAMSAR S.L.
- KARRETTA
- LARRAZA
- Mank sakana
- MAPFRE
- SAKANALASER
- Borda
- LEGARBE
- xagu
- Sakana
- Industrias Otxagabia



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com

Pedro Mari Irigoien

Momentu samin hauetan
famiarekin bat.



Urdaingo Udala

Pedro Mari Irigoien

Agur da beste leku bat edo hemen leku bat egitea
agur da ate bat ireki edo ixtea,
agur da musu bat iluntzean edo keinu bat esnatzean,
agur da bukatzea bukatze hutsagatik edo berriz
izateko, bestela,
agur da barruan igartzen den mina edo poza,
Eta beti agur!

Zure seme-alaben Urdingo lagunak



**Oroigarriak
egiten
ditugu**

Nahi duzun
argazki
eta testuarekin

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.eus

**Pedro Mari Irigoien**

Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Hitzak soberan dauden momentu
hauetan, muxu handi bana.

Urdingo Ezker Abertzalea

**Pedro Mari Irigoien**

(Gure lankide Aitorren eta Aitziberren aita)

Dastatu eguzkiaren argia
zauden lekutik.



Sakanako AEK

**Consuelo
Andueza Mendinueta**

Gurekin egonen zara beti.

Hileta elizkizunak gaur ostirala, arratsaldeko
18:00etan Arbizuko elizan.

Etxekoak

Arbizun, 2015eko uztailaren 1ean.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko
11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua
zorion@guaixe.eus-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora



GRUPO
Funeraria
VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Iruñeko Miguel Astrain kalean pisu bat alokatzen da. Unibertsitatetik 5 mitutuetara; 3 logela 3-5 pertsonendako. Interesatuek hots egin 679 07 36 02 telefonora. Whatsapp ere badugu.

Opatutakoak

Bizikleta bat. Altsasuko Aralarko Mikel Donea Institutoan, bizikleta utzi, ahaztu edo galdu duenak, mesedez, hots egin dezala 948 56 48 35 telefonora.

Haur baten zapatila opatuta Altsasun. Galdu duenak hots egin dezala GUAIXEra, 948 56 42 75.

Lehiaketak

Argazki lehiaketa. Nafarroako Landa Turismoko Federazioak Igo Argazki Lehiaketa antolatzen du Nafarroa bisitatzen dutenei zuzenduta. Argazkiak e-mail bidez bidali daitezke info@turismoruralnavarra.com helbidera edo zuzenean www.turismoruralnavarra.com web orrialdera igo. Azken horretan dago lehiaketari buruzko informazio guztia.

Oharrak

Odol-emaileak. Garilaren 14an, 15ean eta 16an, arratsalde Altsasun; eta 17an goizez Altsasun.

Saharako haurrak ekartzeko laguntza zenbakien zozketa. Hauek atera dira: 0833 -1130 - 3153 eta 2824.

Bertso udalekuak. Euskal Herriko osoko haur

JAIOTZAK

- **Mohamed Aiman Esoubai Azizi,** ekainaren 23an Olaztin.
- **Sabin eta Adur Larrion Anda,** ekainaren 25ean Etxarri Aranatzan.
- **Jon Zabalo Etxeberria,** ekainaren 26an Lakuntzan.

EZKONTZAK

- **Felix Arregi Razkin eta Leire**

Mendizabal Crespo, ekainaren 29an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- **Candido Morentin Lukin,** ekainaren 28an Etxarri Aranatzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

eta gazteek parte har dezakete bertso-udalekue-tan. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsoszale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabezin>.


MENDI TXIRRINDULARITZA-BTT

SAKANDARRAK BARDEETAKO INFERRUAN: Igandean 1.492 bikerrek hartu zuten irteera Extrema Bardeak proban (114

km). Horietatik 1.374 iritsi ziren helmugara, David Garcia (3:57:04) buru zela. Proban sakandarrak ere aritu ziren.

kirola >>

Atletismoa



Arrakasta itzela izan zuen probak.

Berdud eta Asurabarrena bikain San Fermin lasterketan

Maratoi erdian Berdud 18.a sailkatu zen eta 10 km-koan Asurabarrena 22.a

Larunbatean San Fermin maratoia jokatu zen Iruñean. Hiru distantziatako lasterketak izan ziren: maratoia, 42 km-koa, maratoi erdia, 21 km-koa eta 10 km-ko lasterketa. Proba guztiak kontuan hartuta, guztira 2.000 atleta pasa lehiatu ziren. Maratoian 300 atleta pasa aritu ziren eta Iñaki Rey (2:41:40) eta Miriam Gazpio (3:19:08) gailendu ziren. Juanjo Armendariz izan zen lehen sakandarra, helmugan 104.a (3:45:13). Maratoi erdian, aldiz, milatik gora korrikalari lehiatu ziren. Eduard Tlareuq (1:16:15) eta Alejandra Arribas (1:28:45) izan ziren azkarrenak. Mikel Berdud altsasuarra 18.a iritsi zen helmugara (1:27:22). Eta, 10 km-ko proban Alberto Rodriguez gailendu zen mila korrikalari pasatxoren artean (33:49). Amaia Melerorekin batera (38:26). Isidro Asurabarrena 22.a sartu zen (39:51).

Sakandarrak San Fermin maratoian:

42km		
1.	Iñaki Rey	2:41:40
104.	Juanjo Armendariz	3:45:13
111.	David Mutiloa	3:47:08
240.	Juan Carlos Cano	4:32:54
247.	Juan Manuel Perdignes	4:35:27

21 km		
1.	Eduard Tlareuq	1:16:15
18.	Mikel Berdud	1:27:22
56.	Javier Pain	1:32:50
188.	Adolfo Lopez	1:41:36
285.	Mikel Luis	1:45:53
318.	Javier Galarza	1:47:18
330.	Sergio Ondarra	1:48:00
468.	Alfonso Mateu	1:52:46
471.	Ruben Mendieta	1:52:59
886.	Francisco Javier Navarrete	2:16:26

10 km		
Gizonak		
1.	Alberto Rodriguez	33:49
22.	Isidro Asurabarrena	39:51
114.	Borja Gonzalez	45:42
166.	Javier Riezu	47:26
167.	Fernando Montero	47:27
243.	Ignazio Arratibel	49:33
346.	Juan Antonio Palacios	52:01
504.	Juan Mazkarian	55:09
704.	Alejandro Aiala	59:58
768.	Jose Manuel Vilariño	1:01:26
937.	Icaro Flavio Amaral	1:13:06

Emakumeak		
1.	Amaia Melero	38:26
195.	Erkuden Aiala	59:15
233.	Ione Muñoa	1:00:39
234.	Maitte Zornoza	1:00:39
250.	Tiscar Duran	1:01:06
260.	Maitte Duran	1:01:18
358.	Maria Claudina Jimenez	1:04:13

Pilota

Sanferminetako lau t'erdiko finalaren bila

Aspe adarreko Sanferminetako lau t'erdiko finalerdia jokatu du gaur Ezkurdiak eta Irujok

San Fermin egunean, ohi denez, Sanferminetako lau t'erdiko finala jokatu da, eguerdian. Asteburu honetan zehaztu da zeintzuk jokatu duten finala. Aspeko finalerdia gaur jokatu da, Logroño-ko Adarra pilotalekuan. Aurretik Jon Jaunarena eta Julen Retegikanporatzeagatik datorren Joseba Ezkurdia arbizuarrak Juan Martinez de Irujo izango du aurkari. Partida zuzenean eskainiko du ETB1ek. Irujo da faboritoa bai-

na Joseba Ezkurdia kaiolan partida bikainak egitetik dator eta ez dizkio gauzak batere erraztuko Iberokoari. Ea sakandarra astearteko finalera heltzen den. Asegarekeo adarrean, Aimar Olaizolak eta Iker Arretzek jokatu du Sanferminetako lau t'erdiko finalerdia, larunbatean.

Sanferminetako binakakoan Ezkurdia eta Zubieta bikote Sei bikote ariko dira Sanferminetako Binakako Torneoan. A multzoan Olaizola II-Untoria, Berasaluze II-Albisu eta Altuna III-Rezusu-



San Fermin eguneko finalean egon nahi dute Irujok eta Ezkurdiak.

ta, eta B multzoan Bengoetxea VI-Beroiz, Irujo-Barriola eta Ezkurdia-Zubieta. Hortaz, beste behin biko sakandarra izango dugu txapelketa batean, kasu honetan Joseba Ezkurdiak eta Aitor Zubietak osatutakoa.

Ezkurdiak eta Zubietak garila-

ren 8an ekingo diote Sanferminetako Binakakoari. Bengoetxea VI.a eta Beroiz izanen dituzte aurkari, 22:15ean. Partidako galtzaileek Irujoren eta Barriolaren kontra jokatu du garilaren 10ean, eta irabazleak ere Irujo-Barriola izango dituzte aurkari garilaren 12an.

Mendi lasterketak

Sakandarrak II. Triku Trailean (21 km):

1.	Juanjo Igarzabal	1:46:57
12.	Evaristo Noveleta (Iruj)	1:57:57
18.	Joxeja Maiza (Etx)	2:03:10
24.	Mikel Rubio (Iruj)	2:05:36
27.	Alberto Razkin (Etx)	2:07:25
36.	Beñat Katarain (Lak)	2:09:43
40.	Patxi Cano (Alts)	2:11:18
41.	Iker Flores (Alts)	2:11:35
42.	Mikel Perez de Eulate (Etx)	2:11:40
48.	Ander Unzurrunzaga (Etx)	2:12:44
72.	Fran Araña (Arb)	2:18:33
92.	Javier Senar (Etx)	2:22:26
96.	Raul Audikana (Olaz)	2:22:58
104.	Izaskun Beunza (Olaz)	2:24:15
108.	Israel Arbizu (Etx)	2:25:03
109.	Julen Paniagua (Urd)	2:25:03
127.	Igor Artieda (Etx)	2:29:26
132.	Juan Mariñelarena (Etx)	2:30:35
140.	Alberto Anton (Alts)	2:32:46
144.	Juan Daniel Lakuntza (Etx)	2:33:54
148.	Julen Arratibel (Etx)	2:34:54
157.	Jose Mari Igoa (Alts)	2:36:46
163.	Ibai Arrese (Etx)	2:38:19
172.	Jose Leitza (Arb)	2:39:32
175.	Fermin Zornoza (Olaz)	2:39:46
176.	Ion Zubiria (Alts)	2:39:55
185.	Jon Goikoetxea (Etx)	2:40:33
202.	Maitte Zabaleta (Etx)	2:43:20
206.	Mikel Beloki (Etx)	2:44:36
207.	Xabier Urrestarazu (Etx)	2:44:36
211.	Erkuden San Martin (Etx)	2:44:55
226.	Maria Goikoetxea (Etx)	2:49:27
254.	Aiert Lizarraga (Etx)	2:58:49
257.	Iker Salinas (Etx)	2:59:18
267.	Asier Arratibel (Etx)	3:05:40
268.	Juan Jose Iriarte (Etx)	3:06:27
286.	Jabier Bados (Olaz)	3:17:53
291.	Amaia Gerrikagoitia (Arb)	3:21:46

Triku Txikian 60 partaide

Aurten, lehenengoz, kategoria txikiendako Triku Txikia antolatu zen, 500 metroko lasterketa edo traila. 60 neska-mutikok hartu zuten parte, giro ederrean. Proba ez lehiakorra zen eta ez zen sailkapenik egin, guztiak izan ziren irabazle.

Arrakastatsua izan zen igandean jokatu duen II. Triku Trailean (21 km, 2.800 m desnibel +). Etxarri Aranzako kanpina irteera eta helmuga zuen lasterketan 350 korrikalari hartu zuten parte, probak ahalbidetatzen zuen gehiengoak. Horietatik 307 klasifikatu ziren.

Igarzabal eta Ibarbia nagusi II. Triku Trailean

37 SAKANDAR LEHIATU ZIREN ETA EVARISTO NOVELETA ETA IZASKUN BEUNZA IZAN ZIREN ONENAK



Korrikalariak probaren edertasuna nabarmendu zuten. Argazkian, bukaerako podiuma. N. MAZKIARAN

Hariztiz, pagadiz eta trikuharriz jositako paraje zoragarriek eskainitako itzala eskertu zuten korrikalariak, 30º-ko tenperatura baitzegoen.

Kanpinetik aterata Maitzegurrietiketa Auntzetetik pasatu ziren korrikalariak. Ibilbidean aurrera eginez, Axioren putzua pasatu ondoren Lizarrustira heldu ziren, eta ondoren Txaradigorri trikuharrira jo zuten. Hortik Hiramuge-ta igo zuten, Otxentara jaitsi eta Fagamendi igotzeko. Handik hariz zaharren ibilbide zoragarritik jaitsi ziren, helmugaraino.

Basoan barrenako ibilbide gora-beheratsu eta ederrean Juanjo Igarzabal izan zen azkarrena (1:46:57). Zumarragakoak ia 4 minutu aterata zizkion Joseba Larralde beratarri (1:50:51). Hirugarrena Irunberriko Xabier Zarranz sailkatu zen (1:51:50). Igarzabalek azal-

du zuenez, Joseba Larralde hartu zuen aurea hasieran. "Indartsu hasi da eta elkarrekin egin ditugu lehendabiziko 6 kilometroak, txandakatuz. Nik erritmoari eutsi egin diot eta Joseba atzean gertzen hasi da; baina Lizarrustiraino oso gertu egon gara. Bukaera aldera alde gehiago aterata diot" adierazi zuen txapeldunak. Etxarri berarendako "berezia" dela aitortu zuen. Izan ere, ferietan jokatzeko den Etxarri Aranzako Mendira Joan Etorria ere irabazitakoa baita gipuzkoarra.

Noveleta eta Beunza, lehen sakandarrak Emakumezkoetan Aitziber Ibarbia zizurkildarra gailendu zen (2:08:34), Nerea Amiliabiari 4 minutu aterata (2:12:34). Lide Gorostio-la izan zen hirugarrena (2:22:57). Izaskun Beunza olaztiarra izan zen

laugarren emakumea eta lehen sakandarra (2:24:15). Lasterketan 37 sakandar aritu ziren. Gizonezkoetan Evaristo Noveleta irurtzundarra izan zen lehen sakandarra, helmugan 12.a sailkatu eta gero (1:57:57) eta emakumezkoetan Izaskun Beunza.

Helmugan muskuluak erreku-peratzeko igerileku txikia izotzez bete zuten. Bainua hartzeko aukera izan zuten korrikalariak eta itzalpean masajeak hartzeko aukera. Antolakuntzan 120 pertsona baino gehiago aritu ziren lanean.

Sari ematean 1.200 euro banatu ziren. Irabazleek txapelak jaso zituzten eta podiumeko gainontzekoek trofeoak, lehen sakandarrek eta etxarriarrek barne. Guztiek kamiseta eta produktu loteak jaso zituzten opari eta kanpinean bildutako guztiendako auzate ederra izan zen.

Automobilismoa



II. Klasikoan Topaketa Altsasun

Larunbatean, 10:00etatik aurrera Zumalakarregi plazan

Clasicos Alsasua taldeak hainbat babeslerekin batera antolatuta, larunbatean II. Auto eta Motor Klasikoan topaketa hartuko du Zumalakarregi plazan. Goizeko 10:00etatik 13:00etara bilduko dira ibilgailu klasikoak, Zumalakarregin. Auto eta motor guztiak gertutik ikusteko aukera izanen da orduan. 11:30ean partaide guztiendako auzatea izanen da, eta 13:00etan martxan jarriko dira klasikoak, Arbizuko Izarra jatetxeraino. Han bazkaria izanen baita 14:30ean.

Areto futbola



Taldeetako bat.

Parkea Martxan Txapelketa hasi da

Giro bikainarekin hasi da Lakuntzako txapelketa

Aurrekoastean hasi zen I. Parkea Martxan Areto Futbol Txapelketa, Lakuntzako parkeko pistan jokatzeko den kuadrilen arteko txapelketa, hain zuzen. Guztira 8 talde ari dira lehia, 2 multzotan banatuta. Lehen multzoan Bandiduek, Los Suaves, Karrotillo 2 eta Biltoki neskak, eta bigarren multzoan Kaimanak F.C., Burutik Jotak, Karrotillo 1 eta Sikomotronik.

1. jardunaldiko emaitzak:

Los Suaves 4 / Karrotillo 2
1 Bandiduek 6 / Biltoki neskak 1
Kaimanak FC 3 / Karrotillo 12
Burutik jotak 2 / Sikomotronik 1

Asteburuko jardunaldia

Larunbatean

19:00etan: Karrotillo 2 / Bandiduek

19:55ean: Karrotillo 1 / Burutik jotak

20:50ean: Sikomotronik / Kaimanak

Igandean

19:55ean: Biltoki neskak / Los Suaves

Futbola

Altsasuk emakumezkoen taldea osatu du

2015-2016 denboraldian Nafarroako Emakumezkoen Ligako haur-kadete mailan ariko da

Aurten helburua lortu da. Sociedad Deportiva Altsasuak emakumezkoen futbol taldea sortzea lortu du. Orain arte mutilekin batera aritzen ziren neskak, baina soilik kategoria jakin batera iritsi arte. Edo, bestela, beste herrietara jotzen zuten, Agurainera bereziki. Baina orain neskek badute Sakanan futbolearen non aritu. Altsasu taldeak 2015-2016 denboraldian Nafarroako Emakumezkoen Ligako haur-kadete mailan parte hartuko du. Dagoeneko lehen hartu-emanak izan dituzte eta, horrela, ekainaren 13an debutatu zuen emakumezkoen Altsasu futbol taldeak, Dantzalekun, Lekunberriko Beti Kozkor taldearen kontra. 4-2 irabazi zuten sakandarrek.

Taldeak 12ka sakandarrek osatzen dute eta Ane Cantero eta Gorka Pascua izango dira entrenatzaileak, aldaketarik ezean. Izan ere, Sociedad Deportiva Altsasun junta aldaketa egonen da eta beste

Altsasu emakumezkoen taldea



Jokalariak: Jone Apaolaza, Saioa Sayas, Nerea Arellano, Udane Vergara, Ainhoa Agirre, Amets Oteiza, Aroa Cerezo, Silvia Amores, Maider Granizo, Irati Igoa, Naroa Barriola eta Eider Vicente. Entrenatzaileak: Ane Cantero (Osasunako jokalaria ohia eta egun 2. Mailako Mulier taldeko jokalaria) eta Gorka Pascua.

aldaketarik ere etorriko ote diren ez dago argi. 2.000 eta 2.005 urteen artean jaiotako neskek oraindik ere izena emateko aukera dute Altsasu talde sortu berrian.

Triatloia

Felix Benjumea 15.a X. Valle de Buelna Triatloian

Distantzia olinpikoko proba gogorra osatzeko lau ordu eta erdi pasa behar izan zituen. Sergio Garcia de Eulatek ia 5 ordu eman zituen.

Larunbatean X. Valle de Buelna Triatloia jokatu zen Kantabrian. Distantzia olinpikoko proban 1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrikari osatu behar izan zituzten triatletak. Proba gogorean Elche taldeko Diego Paredes gailendu zen (4:15:54). Saltoki Trikidetako taldeko Felix Benjumea altsasuarrak lan bikaina egin zuen eta 15.a sailkatu zen (4:39:38). Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulatek ere maila bikaina eman zuen distantzia olinpiko proba honetan eta 36.a sailkatu zen (4:59:20).

Azurmendi Donostian
Donostiak 30. Onditiz Oroituz Triatloia hartu zuen (1,5 km igerian, 40 km bizikletan eta 10 km korrikari). 628 triatletak osatu zuten proba, Ryan Bailie (2:02:41) eta Charlotte McShane (2:15:30) buru zirela. Sakana Triatloi Taldeko Juantxo Azurmendi 446.a sailkatu zen (2:15:30).

Sakandarrak bikain XX. Uharte Triatloian
Larunbatean XX. Uharte Triatloia



Felix Benjumea.

jokatu zen, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria zen proba. Sakana Triatloi Taldeko triatletak bikain aritu ziren. Aurrebenjamin mailan Alain Razkinek irabazi zuen proba (5:16), eta benjaminetan Egoi Lakuntza bigarrena sailkatu zen (6:36). Kimuetan, aldiz, Xabier Borrega 8.a irisi zen helmugara (13:06).

Errugbya

Ohorezko B mailara igotzea lortu duen La Unica errugbi taldean bi sakandar ditugu



Lehen aldiz heldu den ikasturtean ohorezko mailan jokatu du taldeak. Errugbi talde horretan bi sakandar daude: Mikel Perkaz eta Axio Araña

Historikoa izan da mailaz igotzeko egindako lana. Azken partida ez zitzaion batera erraza planteatu. Avilesen jokatu zuten Belenos taldearen aurka. Joandako partida zuten aurretik jokatzeko eta irabazi besterik ez zitzaion gelditzen mailaz igotzea lortzeko. Belenosen aurka Arazurin jokatu zuteneko a gaitu behar zuten eta bost gol gehiago egin behar zituzten garaipena lortu eta mailaz igotzeko. Halaxegertatu zen. Berdindutako norgehiagoka izan zen arren La Unicak 23-29 irabaztea lortu zuen. Heldu den denboraldian ohorezko B mailan ariko da La Unicako errugbi taldea.

partida nola edo hala irabazteko prest. Mikel Perkaz ihabartarra da jokalarietako bat. Entrenatzailea ere Etxarri-Aranazko semea da, Axio Araña. Ohorezko B mailara igotzeko lanean aritu dira urte osoan gainerako taldekideekin batera. Denboraldia ez da batera erraza izan baina azkenean merezitako lanarekin une historikoak ospatu dituzte.

Motoziklismoa



Olias podiumean.

Olias txapelduna Mediterraneoko Abiadura Txapelketako laugarren proban

Lasterketa Nafarroako Zirkuituan jokatu zen, Los Arcosen

Asteburuan Mediterraneoko Abiadura Txapelketako 4. lasterketa jokatu zen Los Arcoseko Nafarroako Zirkuituan. Aldi berean Zona Norte txapelketako baliagarria zen 2. proba zen. Pilotuek 14 itzuli eman behar izan zituzten zirkuituari, guztira 55,1 km osatuz, bero sapa izugarriari aurre eginez. Juan Mari Olias pilotu irurtzundarrak (Kawasaki) lan bikaina egin zuen 1.000 mailan. Bigarren itzulirako txapelketako buruan kokatu zen eta erritmoari eutsi zion. Berrera izan zen probako bueltarik azkarrena (hirugarren bueltan, 1:45.369). Abantaila ongi kudeatzen jakin zuen eta proba irabazi zuen (25:08.447), Oscar Borrajo bigarrenari 12 segundo aterata (15:20.983).

Frontenisa

Ane eta Uxue txapeldunak

Sakanako Emakumeen VIII. Frontenis Txapelketa irabazi dute

Sakanako Emakumeen VIII. Frontenis Txapelketan 6 bikote lehiatu dira. Ostiralean jokatu zen final handia. Anek eta Uxuek jantzi zuten txapela, final estu eta lehiatuan Andrea eta Izarri 25-21 irabazi eta gero.

Atletismoa

Garcia de Eulate eta Beunza XII. Sakanako Atletismo Kopako buru

Sakanako XXI. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariko bi proba jokatu dira, Aitzkozar Krosa eta Ziordiko Herri Krosa. Gizonezkoetan Sergio Garcia de Eulate da lehena, Ivan Gonzalez eta Javier Borregaren aurretik, eta emakumezkoetan Izaskun Beunza, Ginesa Lopezen eta Haizea Ramirez de Aldaren aurretik. Koparako beste hiru probek puntuatzen dute: Ergoienako XII. Birak (irailak 19), Sakanako XV. Herri Lasterketak (urriak 24) eta Barricarteren XXV. Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abendua 8).

Disko jaurtiketa



Zilarrezko domina June Kintanarendako

Jubenil eta promesa mailetako Espainiako Atletismo Txapelketa jokatu da asteburuan Tarragonan

Tarragonak jubencil eta promesa mailetako Espainiako Atletismo Txapelketa hartu du. Larunbatean emakumezkoen disko jaurtiketa txapelketa jokatu zen. June Kintana bakarko bigarrena sailkatu zen eta zilarrezko domina kolokatu zuen, 48.50 metroko jaurtiketa egin eta gero. Andrea Alarcón izan zen txapelduna.

HURRENA, EUROPAKO TXAPELKETA

Estoniako Tallinek hartuko du 23 urtez azpiko Europako Atletismo Txapelketa. Espainiako selekzioarekin 22 gizon eta 20 emakume lehiatuko dira, tartean 4 nafar. Pamplona Atlético taldeko June Kintana bakarko bigarrena disko jaurtiketan parte hartuko du. Aipatu txapelketa garilaren 9tik 12ra jokatu da.

Txirrindularitza

Rural Kutxa primeran Espainiako Txapelketetan

Talde sakandarreko Roson, Rubio eta Jimenez txapeldunak Espainiako Txirrindularitza Txapelketan

Asteburu honetan Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu dira Caceresen. Beroa izan da protagonista. Rural Kutxa talde sakandarra pozik itzuli da, Jaime Rosonek irabazi baitu Espainiako 23 urtez azpiko Txapelketa. Rosonek eraso jo zuen Caceresko lasterketako azken maldan, eta helmugara bakarrik iritsi zen, Xavier Pastalléren eta Oscar Pelegríren aurretik. Pablo Villar sakandarra 79.a sartu zen, 5:13ra.

RUBIO ERLOJUPEKOAN ETA JIMENEZ ELITEAN

Horretaz gain, Rural Kutxako Jesus Alberto Rubiok elite mailako erlojupekoa irabazi zuen eta Cristian Rodrigéz erlojupeko txapeldunordea izan zen 23 urtez azpikoan. Profesionalen mailako Espainiako Txapelketan Alejandro Valverde gailendu zen, Rural Kutxako Carlos Barbero eta Movistarreko Jesus Herradarekin esprint estua izan ondoren. Hiriberriko Imanol Erbiti 55.a sailkatu zen; eguneko ihesaldiko protagonista izan zen baina 9 kilometroren faltan harrapatu zuten. Rural Kutxako Carlos Jimenez laugarrena izan zen eta elite mailako urrezko domina kolokatu zuen.

Txirrindularitza

Sakanari buelta bizikletan

161 txirrindularik hartu zuten parte V. Sakana Burunda txirrindularitza martxan. Pablo Urtasunek eman zion irteera probari

Larunbatean 161 txirrindulari bildu ziren Altsasuko Foru plazan, Barranka Txirrindulari Taldeak antolatutako V. Sakana Burunda txirrindularitza martxan parte hartzeko asmoz. Eguraldi bikainarekin gauzatu zen proba ez lehiakorra. Txirrindulariek bi aukera zituzten: ohiko proba, 124 km eta 2.011 m desnibel positibokoa, eta laburragoa, 100 km eta 1.050 m desnibel positibokoa. Gehienek, 112k, ibilbide luzea aukeratu zuten.

Guztiak Ziordiraino jo zuten, han buelta hartu eta Olaztin Altamira igo eta jaisteko. Etxarri Aranzteraino heldu ziren segidan, Lizarragako katea igotzeko. Arbizutik jaitsi ziren eta Uharteko Arakileraino iritsi ziren guztiak. Ibilbide luzea hautatu zutenak Uharteko pistatik Aralarko San Migeleraingo igo ziren. Ondoren, Baraibar eta Oderitz pasa eta Madotzeko portua jaitsiz, Altsasuko bidea hartu zuten. Aldiz, ibilbide motza hautatu zutenek ez zuten Aralarko portua igo. Uharteko Arakileraino iristerakoan aurrera egin zuten, Zuhartzuraino, han buelta hartu eta Altsasuko helmugara jotzeko.

Ibilbidean barna Guardetxan eta Ihabarren hornidura guneak antolatu zituen Barranka taldeak, eta baita Altsasuko Foru plazan ere. Bukarera txirrindulariek Barranka taldeko kamiseta eta bertako produktuen lote ederra jaso zuten opari. Horretaz aparte, parte-hartzaileen artean 62 opari lote zozketatu ziren. Eta urtero moduan antola-



Pablo Urtasunek egin zuen zinta moztea.

kuntzak bazkaltzera gonbidatu zituen txirrindulariak: paella goxoa, postrea eta kafea. Guztia behar bezala prestatzeko 70-80 pertsona aritu ziren lanean.

Urtasun hirugarrena San Migelgo igoeran

Probarekin salta pixkat eman nahian, Uharteko Arakileraino San Migeleraingo igoera kronometratu egin zuten. Aurten azkarrena aurreko urteko lehena izan zen, Felix Valcarce iruindarra (32:17). Lehen edizioan Carlos Palaciosek ezarritako errekorra (30:27) ez da gainditu. Lehen sakandarra Pablo Urtasun txirrindulari urdiaindarra izan zen, sailkapenean hirugarrena (33:12).

Sakana Burunda txirrindularitza martxa data ezberdinetan ospatu izan da: uztailean, ekainaren hasieran, maiatzean -tartean San Migel elurtuta zela-, aurreko

Sakandarrak San Migeleko kronoigoeran:

1. Felix Valcarcel (Iruñea)	32:17
3. Pablo Urtasun (Urd)	33:12
9. Iñaki Garmendia (Olaz)	35:28
25. Iker Estarriaga (Alts)	39:13
28. Igor Flores (Alts)	39:28
29. Julen Palacios (Lak)	39:30
32. Xabier Seco (Alts)	39:55
33. Igor Zamarron (Alts)	40:36
42. Ismael Perez (Olaz)	42:24
46. Mikel Solas (Olaz)	42:44
51. Iñaki Alvaro (Alts)	43:23
55. Iban Sobredo (Alts)	44:11
59. Luis Lopez (Alts)	46:00
68. Jon Arellano (Alts)	46:58
70. Javier Arellano (Alts)	47:20
77. Luis Nogueira (Alts)	48:45
78. Jose Mari Trevejo (Etx)	48:45
87. Jose Migel Razkin (Alts)	52:12
107. Beñat Iglesias (Alts)	1:07:17
111. Jose Luis Galparsoro (Olaz)	1:13:52

urtean abuztuaren bukaeran eta aurten ekainaren bukaeran. Antolatzaileek data finkatu nahiko lukete, urtero antzeko datatan izateko, baina proba asko daudenez egutegia oso estu omen dago eta hortik data aldaketak.

Urdiainen bizikleta hartzera

Larunbatean, 17:00etan, eskolen mailako lasterketak Urdiainen Urdiaingo festetan ohikoa denez, bihar, larunbatean, 17:00etatik aurrera, eskolen mailako gynnak eta lasterketak jokatu dira, promesen, kimuen eta haurren mailan. Proba Burunda Txirrindularitza Klubak antolatu du, Udalaren laguntzarekin. Bestalde, asteartean ospatzekoa zen II. Urdiain Trofeoa agorriaren 14ra atzeratu da, foruzainek ezin zutelako probaren jarraipena egin.

Erbiti eta Arrieta Frantziako Tourrera

Bihar hasikoda, Holandako Utrecht, 102. Frantziako Tourra. Bertan arikodensakandar bakarra Imanol Erbiti izanenda. Movistarrek konfiantza handia du Hiriberrikoarengan eta berak talde lana egingo du Nairo Quintana eta Alejandro Valverde talde buruen alde. Jakina, Movistar taldea zuzentzeko lanetan ariko da Jose Luis Arrieta uhartearra.

Urtasun atzera ere Japonian Team Ukyo talde japoniarrean dabil aurten Pablo Urtasun urdiaindarra. Bertan emaitza bikainak lortzen ari da. Ekainean hilabeteko egonaldia egin du Pablok Urdiainen, baina atzera ere maletak hartu eta Japonian dago, bertako denboraldiarekin jarraitzeko.



Eneko Aramendia Ezkio-Itsason txapeldun

Iturmendiara ere mendiko sailkapenean onena izan zen eta probako talde onena Quesos Albeniz izan zen

Juniorrek asteburuan Ezkio-Itsason zuten lasterketa. Burunda klubeko Quesos Albeniz taldekoak pozik itzuli ziren. Eneko Aramendia izan zen txapelduna. Horretaz gain, mendiko sailkapena irabazi zuen eta talde onena Quesos Albeniz izan zen. Asier Etxeberria 16.a sailkatu zen, Josu Gabirondo 46.a eta Alex Unzilla 52.a.



Josu Etxeberria txapeldun Undianon

Kadeteen Lacturale Trofeoa irabazi zuen. Maialen Aramendia bigarren emakumea izan zen

Igandean Kadeteen Lacturale Trofeoa hartu zuen Undianok. Quesos Albeniz talde altsasuarreko Josu Etxeberriak irabazi zuen trofeoa, Lizarra taldeko Migel Mugicaren esprint estua jokatu eta gero. Quesos Albenizeko Hodei Zia 55 segundora sartu zen, 5. postuan, eta Ailetz Lasa 8.a, 1:40ra. Iraña taldeko Imanol Galarza 21.a sailkatu zen, 4:46ra, eta Quesos Albenizeko Josu Jaka 24.a, Oihan Vinagre 25.a eta Beñat Etxezarreta 31.a. Emakumezkoetan Miriam Gardachal nagusitu zitzaion esprint estuan Maialen Aramendia iturmendiarrari.



Josu Etxeberria Nafarroako Erlojupeko Txapelketan. Bigarrena izan zen.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

HARATEGIA
Lopez de Goykoetxea
CARNICERIA

Ondo pasa festetan!

948 562 157
Elizazpi 12 · Urdiain

Ttunttunero garaia

Udako festekin batera txistu doinuak batean eta bestean entzunen dira. Eta hari lotuta, dantza ere izanen da ere. Sakanako folkloreaki eta kulturari lotutako musika tresna horren inguruan gehiago jakiteko Rafael Goñi Lazkano txistulariarengana jo dugu.

Hiru zulodun txirulak munduan barna barreiatuta dauden instrumentu bat dira. Gurean txistu izenez ezaguna da. Goñik esan digunez, “milaka-milaka urte atzera eginda, jo izan dira instrumentuak. Batez ere, makila edo hezurrekin eginak agertu dira. Euskal Herrian, behintzat, Isturitzeko kobazuloan agertu dira. 35.000 urte inguru dituzte”. Etxarriko txistulariak esan digunez, “Mesopotamian, Asirian, Sumerian... lirak, harpak... jotzen ziren. David erregeak lira jotzen zuela kontatzen da. Erromatarrek metala sartu zuten... Musika beti jo da”.

Duela 800 urteko argazkia ateratu. Nafarroako eta Errioxako eliz banatako harriak zizelkatutako bi emakumezko musikari. “Orduko txistuak oso motzak eta oso agudoak izan ziren. Ttunttun apal-apal bat dute, pandero baten bezalaxe. Erdi Aroan Europa guztian jo zen”. Hiru zulodun txirulak esku bakarrekin jotzen baitira. Hark sortzen du melodia. Beste eskuarekin erritmoa sortzen du musikariak. “Beti. Andaluziako la flauta del Rocio, Extremaduran, Salamanca, Zamoran... gauregun ere hala jotzen dute. Orokorrean gure txistua baino luzexagoak eta desafinatuagoak ere dira. Ez du hemengoaren zera hori. Ttunttunak ere, guk erabiltzen dugun danbolinak baino handiagoak dira normalean. Esku batekin melodia eta bes-



tearekin erritmoa. Ez dute hemengoaren indarririk, baina hor daude. Denak, argi eta garbi, Erdi Arotik heldu direnak”.

Eta dantza

Tradizionalki, “dudarikgabe”, txistua dantzarekin lotuta egon da. Zein dantza mota ziren jakiterik ez dago. “Gaur, adibidez, Euskal Herriko dantzarik zaharrenak soka dantzak, zortzikoak, ingurutxoak, dantzakia, larrain dantzak, alkate dantzak... Izen asko dauzka. Denek ezaugarri bat dute, Erdi Arokoak direla. Dantza hasi behar denean zubia egiten da. Ezaugarri hori du gaur egun Euskal Herri guztian. Zubia egin eta dantza hasi”. Zubia esanahia “garbia” dela azaldu digu Goñik: “kontrola. Ea soka zein heldu zen. Baldin eta baldin bazan



ijitoa, agotea, judua edo gaizki ikusiren bat... zubia jaitsi eta sokatik kanpo. Ez zen onartua dantzan”.

Jotak eta porrusaldak geroago koak dira. “Joan Ignazio Iztueta txistulariak jotzen ari zirenekin eskandalizatuta zegoen orain dela 200 urte. Arin-arinari Bizkai dantza deitzen zion. Ilustrazio garai horretan, nik uste, gaureguno dantza asko sortu ziren. XVIII. mendean garapen handi bat izan zen”.

Zainduta

Txistulariena kolektibo “oso kontrolatua” zen. “Garai guzti horretan, ilunabarrean ama-ezkilak jo eta denak etxera. Gaur beldurgarria zen”. Udalek kontratatzen zituzten musikari haiek, “baldin eta ilunabarreko zera hori betetzen ez bazen, ez kobratzeko eta behar bada giltzapean bukatzeko aukera zuten”. Garaiaren “gogortasuna” nabarmendu du Goñik.

XVIII. mendean hasieran Nafarroako gotzainak apaizei dantzatzea galarazi zion. “Ordura arte apaizek zortziko, dantzaki edo dena delakoa dantzatzen zuten”. Sokaren puntan herriko etxalderik onenetako semeak, alkateak, apaizak dantzatzen zuten. Nafarroan prozesioetan ere dantzatu egiten zen. “Gotzain batek moztu zuen. Gizonezkoek bakarrik”.

Orduko elizgizon eta politikoez Balmasedan bilera egin zutela aipatu digu Goñik: “zer heldu zen ikusita, soka dantzan eskuak lotuta ibiltzea galarazi zuten, artean zapia sartzea behartu zuten”. Jose Maria Satrustegik horren inguruan egin dako lan bat aipatu digu: “harrez gero dantza zela eta euskaldunen artean kezka ugari sortu ziren. Beste modu batera dantzatzen bazen, hura bekatua edo muga ote zen. Batzuek dantzatzea, nolabait esateko, kontzientzia kargua bihurtu zen”. Hala ere, udalen kontuetan musikariei egindako ordainketak agertzen segituko dute, “festetan ezinbestekoa” baita dantza.

Agrietako txistularien aipamenak

Txistuareneko doinuak batera eta bestera zabalduko dira uda partean Sakanan. Aspaldiko kontua da hori. Eta hala azaldu du Migel Angel Sagasetak. Urdiaingo apaiza, eta txistularia, bere historia ikerketarako makina bat alditan jo du artxiobotara. Informazio bilaketa horietan beti opatu du txistularien aipamenik eta, aleka-aleka, haiek jaso ditu. Jaso eta txistularien artean zabaldu. Rafael Goñi Lazkanok helarazi dizkigu guri. Jular eta tamborino aipamenak dira artxiobotakoak, txistularienak. Hona hainbat historia aipamen.

1530-03-12 Otsailean sute batek Etxarri Aranazko etxe guztiak erre zituen. Eliza eta jauregia (mojen

eraikina dagoen tokian zegoen) salbatu ziren soilik. Aipatu egunean 84 herritarrek batzarra egin zuten, alkatea buru zela. Bileran Martin Garcia, “tambolino” zegoen.

1537-05-23 Arbizurekin zuten auzi bategatik Etxarri Aranazko 130 herritarrek egindako bilera batean izan zen Martin tamborin.

1539-21-19 Agiri batean aipamena: Miguel Ventura, Lizarragako tambolin-a.

1542-05-16 Ergoienakoen esku dagoen gutun batean aipatzen dira: Miguel tambolin Lizarragan eta Martin tambolin-a Unanun.

1542-08-17 Unanutik Batzarramendira joandako 32 herritarren artean Martin tambolin zegoen.

1546-11-13 Ubitarteako lur-sail baten auzian agertzen da Lakuntzako Martin Garcia, tamborin.

1573-10-13 Tolosan gari karga bat saltzen (kontrabando susmoa) ikusi zuten Arruazuko Martin, chulubitaria-ren semea.

1602-05-07 Joanes de Sarobek deklaratu zuenez, “ledanien aurreneko egunean ergoendar asko Etxarri gelditzen dira, jolasean eta edanean, dantzan eta jublaren gehiegikeriak eginez eta euren etxeetara osoberandubeltzatzen dira”. Lakuntzako zirujaua zen Maese Joan de Arbizuk esan zuenez, “gurutze gelditu ondoren, lehen egunean Etxarri olgetan eta jublaren musika eta dantzekin entretenitzen gelditzen dira”. Hirugarren egunean asko Lakuntzan gelditzen dira, beste batzuk Arbizon, “jaten eta edaten eta jublaren musikarekin eta dantza lizunekin ongatuz”.

1609-10-01 Pedro de Etxarri eta

Francisca de Torranoren ezkontza kontratua egin zen. Adostutakoaren arabera, “tamborin ogibidearekin Pedrok festetan eta goizetako alboradak joz lortutako garia berarendako eta bere emaztearendako izan zen dela”.

1628-12-24 Nartarteko Leon de Arizkun, tambolin, eta Marina de Errazkin etxarriarra ezkondu ziren. **1644** Martin de Arbizu ziordiarak Puyko festetan jular eta tamborinarekin egindako lanagatik 12 erreale kobratu zituen.

1647-1655 Aldi horretan Ascenciode Inza ziordiarra Puyko festetan presente izan zen. 1648an tamborin eta flauta zeraman Pedro de Lizalderekin joan zen. Azken urtean, ziordiarak 12 erreale kobratu zituen.

1650-08-15 Auzi batean aipatzen denez, arratsaldean, Etxarri Ara-

nazko Andra Mari ermitaren inguruan jular baten doinura gazte jende asko dantzan zebilen. Dantza-kia gidatzen zuena Don Bernardo de Artieda zen eta azkena D. Juan de Agirre, sotanak jasoz.

1667-06-17 Uharteko Arakil eta Baribarren arteko auzi batean Joanes de Irañeta, tamborin, aipatzen da. **1682** Urdiaingo kontuetan Trinitateko festetarako ekarritako tamborinarendako 8 erreale eta San Pedrotarako 4 errealeko ordainketak ageri dira.

1688-06-08 Bakaiku, Iturmendi eta Urdaingo udal agintariak Santa Marinarin sainduaren egunean eta Trinitatearen egunean festak ospatzen zituztela adierazi zuten. Herri bakoitzak tamborin bana eramaten zuten eta dantzak direla eta gazteen artean “diferentziak eta pen-

Rafael Goñi Lazkano, txistularia



Izenak eta hobekuntzak

Artxiboetako agirietan hiru zuldun txirulak jotzen dituzten pertsonak, gizonak, jular, tamborino edo silbo izendapenarekin ageri dira. Administrazioaren hizkuntza idatzia gaztelania zen eta hala jaso zuten idazkariek. Goñiren ustez 1860urtearen inguruan hasiz txistulari izena zabaltzen. Silbotea ere berehalasortuzelanabarmendutu.

Beste izendapen bat ere badu musikari horrek: ttuntuneroa. "Guk, Etxarrin, txikiak ginela ez genuen jo txistua esaten, jo ttuntuna baizik. Askotan entzun dut". Herri kantu bat gogora ekarriz esan digu: "ttuntuna festa! Argi eta garbi!" Zuberoan txirularekin batera jotzen den perkusio sokadun instrumentuari ere ttuntuna deitzen zaiola gaztigatu digu.

Joan den mendean Javier Hernandez Arsuagak eta Isidro Ansorenak txistua moldatu egin zuten. Ordura arte kalibratu eta afinatu ezin zen instrumentua baitzen. Pixka bat luzatuta eta Fa-n afinatu zuen. Horren ondorioz, gaur egun txistua beste edozein musika tresnarekin batera jo daiteke. Eta horrela ere kontserbatoriorako ateak zabaldu zitzaizkion. "Sekula ez bezalako teknika duen txistu bandak ditugu gaur egun", nabarmendu digu Goñik.

Etxarriarra erromerietatik eta festatikerretiratutadago: "puntanez. Atzetik-atzetik, pixka bat laguntzen dut". Bakaikun zortzikoa joko du eta Altsasun ere ariko da. "Frankotan, baina beti laguntzen". Gogora ekarri duenez, Euskal festak izan ziren Etxarri Aranatzan 20ko edo 30eko hamarkadan. "Gaiteroak aurretik egon arren, orduan dantza talde batsortuzen. Gerrarekin dena pikutara joanzen". Bere ustez, "Etxarri gaita nagusi zen. XIX. mende akaberatik Karasatorretarrak mar txan zeuden. Haiek gaitarekin urte asko eta onak eman zituzten".

Goñik bederatzi urte zituen eta garaiko "mutiko pila bat bezala" solfoa ikasten zuen eta haien eskutan "txistuak erori" ziren. "Gogoan dut jo genuen lehen aldian 10 bat urte izan nire nituela. San Ignazioaren erlikia Etxarri Aranatzera etorri zen. Guk talde txoa orduan txesortuagenuen. Bidegurutzetik elizaraino lagundu genion txistua jotzen". Txistulari talde hark askoren arreta piztu zuen. 11 urte zituela Goñi eta beste haur txistulari etxarriarrek uda batez Beizaman, Astigarragan eta Hernanin jo zuten. "Zuzendari hura bota egin zuten eta txistuarekin umezurtz gelditu ginen. Hortxe moztu zen guretako".

Urte batzuk pasa ziren eta Uda-berri mendi elkarteak sortu zen. "Ateratzeko ginen aldiro beti txistua eramaten genuen. Urtean zortzi-

hamar aldiz ateratzen ginen eta beti txistuarekin. Batere aurrerapenik gabe, baina lotura bai".

Frantzian

Soldaduskan zegoela txistua joz konpainian "oso popular" izan zen. Lizentziatzeko garaian, Frantziara bi hilabete eta erdiko bira batera joateko aukera izan zuen. "Galtezko ez eta joan eginen naiz". Donibaneko Etorri dantza taldearekin "txistulari heldua ez nintzelako estualdi latzak" pasa zituela esan digu Goñik. "Han nengoela egun asko lau ordu jo eta fuego ematen txistuari. Kontzertuko bi partitura ikasi beharra. Hasiera batean ez nintzen gauza. Xelebrea da esatea, baina txistularia, ni Frantzian egin nintzen. Parisen, Bruselan, Londresen... kanpoan, bazterrek ederki estututa".

Etorri bira hartan dantza taldeko jo zuen orokorrean. "Bain profesional gisa prestatutako ikuskizunaz. Bi une zehatz zeuden, biminutu eta erdi hirukoak, dantzariak aldatu beharra zutenak. Antzokietako gortinen aurrera atera, non baitetik kanoi bat argi eta, benga, hik bakarrik jo zak!" Bi partitura jotzen zituen: Intxaustiren Kontrapas bat eta Artzain kantak. "Partitura jantziak. Gaitasuna duen txistulari batendako, bikainak".

Abesbatza

Bira bukatu eta etxera bueltatu zen. Zortzi bat urtez txisturekin ez

zuen erabat eten. 1972an Etxarri Aranazko abesbatza sortu zen. "Han muturra sartu eta han ateraldi gehienetan txistua. Patxi (Villanueva) apaizarekin (zuzendaria) jotzen genuen: I. kalez kale, II. kalez kale, Baserritarra... Txistuak abesbatzan bere tokia zuen". Emanaldien akaberan hartzen zuen txistuak tokia. "Gehienetan Benancio koinatuak atabala jotzen zuen". Batzuetan biak bakarrik aritzen ziren.

Etxarri Aranazko abesbatzaren aurreneko hamar urteak ikusgarriak izan ziren. Kontzertuak eman eta sari asko lortu zituen abesbatzak. Orduan "herrietako festetara joan, meza nagusian kantatu, gero kontzertu txoa eman... pasada bat. Gaur egundik begirata zuek jota zeundeten esateko moduko!" Zuten giroa eta urtean egiten zituzten irteera pila dituen gogoan.

Orduz geroztik txistura lotuta dago. Altsasun bizi da eta Esther Irisarri hil ondoren "zera bat gelditu zen. Zerbait hastera erabaki genuen, txistua pixka bat ateratzeko eta hor gabiltza Burundar Txistulariak taldean. Urtean emanaldi pare bat egiten ditugu. Herri txikietan ere eman dugu". Taldean burundarra ez den bakarra da bera. Sakanan txistuaren sokari "tirada" eman nahi dio: "guk jaso dugun moduan ondorengoei utzi diezaiegun ahal den osasun onenarekin, ahal bada".



Etxepare Saria Añorgarendako eta Mitxelenarendako

Gelari handia albumarekin saria 2006an eskuratu ondoren, atzera ere, saria lortu dute Pello Añorga idazleak eta Jokin Mitxelena ilustratzaileak. Biek ere eskarmentu handia dute. 80ko hamarkada erdialdean hasi ziren elkarlanean. Aurten sariketara aurkeztutako 18 lanen artean epaimahaiak *Munstroek pixa egiten dute ohean* izenburua duena aukeratu du. Egile eskubideen aurrerapen modura 5.000 euroko saria eskuratu dute. Pamiela argitaleak txekak albuma udazkenean argitaratu du.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Nafarroako beste hainbat erakundetakoekin batera antolatzen du Etxepare Saria. 2004an abiarazi zuten lehiaketa. Euskaraz sortutako album ilustratuei bultzada emateko sortu zen, izan ere, euskaraz argitaratzen diren album gehienak itzulpenak dira, eta ezeuskaraz sortuak. Albumen ekoizpena ere garestia da eta horregatik sariaren zati ere bada albumaren argitaratzea.

Arrebote, zuzenean

Larunbatean, 20:30ean, Altsasuko Zumalakarregi plazan

Arrebote talde altsasuarrak A bihar kontzertua emanen du etxean. Euren bigarren diskoa, *Leihotik*, aletuko dute emanaldian. Runba, pop, punk, rock eta reggae doinuen nahasketa ederra larunbat arratsalderako.



D'Capricho taldeak Kubako doinuak ekarriko dizkigu

Igandean, 20:00etan, Irurtzungo igerilekuan Kubako erritmo oparotasuna eta kantu ezagunen interpretazio berritzaileak eskainiko dituzte

Habanako Danieuris eta Danie Illis Moya Ávila ahizpek osatzen dute D'Capricho taldea. Euskal Herrian barna egiten ari diren biran *Son en sus poemas* izenburuko diskoa aurkeztzen ari dira. Eli-seo Diego eta Fina García Marruzen poesia musikatuak biltzen dituzte lan horretan.

dentziak" izaten direla azaldu zuten. Erabaki zuten prioren herriak eramanen zuela tamborina eta meza ondoren izan nire zela dantzaldia.

1690 Santiago egunerako eraman zuten xularrari 8 erreale ordaindu zizkion Bakaikuko Udalak.

1690-10-14 Unanuko bikario Juan de Mirandak unanuarrei 326 gari errege mailegatu zien. Juanes Etxeberriari, jular, 13 errege.

1692-06-24 Mikaela de Gorritxo, Unanuko Danbolinaneakoa etxekoa. **1694-01-19** Fermin de Juanbelzek deklaratu zuen Bakaikuko Pedro de Elizalde, jular, eta bere emaztearendako etxea egin zuela.

1697-05-28 Auzi baten zatia. Santa Marina ermitara igo ziren ohi bezala eta urdiaindarrek euren tamborina eraman zuten eta dantza gidatu eta dantzatzen saiatu

ziren. Bi talde sortu ziren: bakaikuarrek alde batetik eta iturmendiarrek eta urdiaindarrek bestetik. Lehengoek 1688ko autoa ekarri zuten gogora.

1698 Urdiaingo Udalaren kontutuan: Trinitate eta Santa Marina jotzeagatik 16 erreale Joaquin, tamborin.

1701 Notaritzako ohar batean: Francisco Goikoetxea, herriko tamborin, aipatzen du. 1729ko bere heriotza agirian jular aipatzen da.

1706-10-31 Altsasun hartutako erabakia: gazteak beste edozeinek jularren edoneskatzen kantuen doinura soilik plazan dantzatu dezaket. Urte guztian ezin da ama-ezikilak jo ondoren dantzatu, patrioaren eguna izanda ere. Are gutxiago iluntzeko ezkila doinu horien ondoren Otadiako Kristo

Deuna eta San Juan ermitetara jularrekin dantzatzera joatea. Edo kantuekin bada ere. Mutilendako isuna 4 errealekoa zen, 8koa neskendako. Urdiainera eta Olatzagutira egiten ziren prozesioetan ere jular eta kantuen doinura dantzatzeko debekatu zieten gazteei.

1719 Joaquin Ostiza tamborinari Trinitate eta Santa Marina egunetan jotzeagatik 16 erreale ordaindu zizkieten.

1719 Lakuntzan Korpus eguneko dantzari 8 erreale eta 6 marabedi eman zieten (antxumea eta errege erdi ogi) eta bi erreale Martin de Egues julareri.

1758-04-04 Esteban de Artieda, Joseph de Beltza, Francisco de Erdozia eta Jose Manuel Aringazte etxarriarrek Amezketako Ignacio de Bengoetxea julara urte guztiko ja

egunetan jotzeko kontratatu zuten. **1767-03-03** Auzi baten bidez jasoa. Ihoteetan Antonio Telletxea jularren doinura puska biltzean aritu ziren Etxarriko gazteak.

1785 Etxarriko San Kiriko, San Adrian eta Andra Mari ospakizunetan jotzeagatik jularreka eta tamborrek 42 erreale eta 18 marabedi kobratu zituzten. 1786an eta 1787an ere ordainketak egin ziren.

1824 Iturmendiren errolda egin zen. 462 biztanleen artean Martin Angel Ezponda zegoen. Lakuntzarra sortzez, dambolintero ogibidea zuen. **1841-11-10** 11 pertsonen alkatearen etxea behartu, Pedro Ignacio Jaka alkateari eta Santiago Jaka erregidoreari harrikada bana eman, eta aipatu etxetik zeuden musika tresnak atera zituzten.

+www.guaixe.eus

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 8%	euria: 8%	euria: 10%	euria: 10%	
Min: 15 Max: 36	Min: 17 Max: 27	Min: 16 Max: 26	Min: 15 Max: 30	Min: 15 Max: 26	Min: 14 Max: 24	Min: 13 Max: 26	

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	37.5	12	0
Etxarri A.	36.7	9.4	0
Altsasu	35	11.5	0
Aralar	27.9	10.2	0.1
Urbasa	31.5	6.7	2.2

: ilargiaren aldia>>

	ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
	8	16	24	31

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

GARILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri museorako 2 sarrera, Katxiporreta lotea, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Aquariumerako sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Katxiporreta lotea, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Aquariumerako sarrera.

>> 11 galdera

Gema eta Jon Lakuntza

Altsasuko Sebastian harategiak 100 urte

Testua: Maider Betelu Ganboa



Festa hotsa heldu da

Festa programak diseinatu eta inprimatzen ditugu

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

%5eko deskontua Bierrik Fundazioko bazkideei

1. Nork zabaldu zuen Altsasuko Sebastian harategia?
Sebastian gure birraitonak. Iturmenditik etorri eta harategia zabaldu zuen 1915ean.

2. Ondoren nork hartu zion txanda?
Birraitonari, gure aitona Rufinok, Jose bere anaiak eta gure amia Josefinak hartu zioten txanda. Ondoren gure aitona amonei, gure ama Mari Carmenek eta gure osaba Sebastianek jarraitu zieten.

3. Aurten 100 urte bete ditu harategiak eta orain bilobek duzue haren ardura. Lan egiteko moduan asko aldatu da harategia 100 urte hauetan?
Bai, erabat. Hastapenetan harategiak erdi harategi eta erdi tratante izaera zeukan. Gure birraitonek eta gure aitona era hartako negozioa zuten. Ondoren, ama eta osaba hestekiei eta etxeko beste produktuei garrantzi gehiago ematen hasi ziren. Eta gaur egun, guk prestatutako etxeko produktuen eskaintza zabala daukagu. Pentsa, postreak eta guzti egiten ditugu.

4. Harategiak toki berean egoten jarraitzen du?
Toki berean zehazki ez, baina bai plaza berean. Hasierako harategiak Altsasuko plazara ematen zuten, ondoren eraikineko atzeko partera pasa zen eta azkenik amak

eta osabak gaurko tokian egin zuten harategi berria, Otadia plazako 6. zenbakian, orain 28 urte.

5. Zeintzuk dira Sebastian harategiko berezitasunak edo produktu izarrak?
Egun eta azkeneko urteetan produktu izarrak guk ekoiztutako etxeko produktuak izan dira, horien artean txistorra, tripota eta tripakiak izarrak izan dira, baina azken urteetan hainbat eskalope eta hanburgesa mota produktu izarrak bihurtzen ari dira.

6. Urte luze hauetan saririk izan al duzue?
Bai makina bat. Batez ere txistorrarekin jaso ditugu asko, baina baita Laketen eginiko plater prestatuekin ere.

7. Bilobek harategiaren martxa hartu duzuenetik berrikuntzak sartu dituzue?
Bai asko. Batez ere zerbitzuan eta produktuen eskaintza zabalean. Egun bezeroek arreta handia behar dute. Horregatik produktzioa alde batean egiten dugu eta harategian produktu eskaintza handia eskaintzen eta bezeroari arreta handia ematen saiatzen gara. Lehen dena leku berean egiten genuen eta eskaintza murriztagoa zen.

8. Sebastian harategiaz

arduratzeaz gain Laket artesanos enpresa jarri duzue martxan. Zein produktu eskaintzen ditu Laketek?
Laket-en makina bat produktu egiten ditugu: tripakiak, txistorra, tripota... baita plater prestatuak ere: ajoarrieroa, karrillerak, alde zurratik prestatutako entsaladak... Orain postreak ere eskaintzen ditugu, gazta tarta adibidez.

9. Nolakoak dira bezeroak? Betiko produktuak kontsumitzeaz gain produktu berriak dastatzera animatzen dira?
Egungo bezeroek oinarrian betiko produktuak dituzte gogoko, baina, bestalde, etengabe berrikuntzak aurkeztea eskertzen dute eta horiei erantzuna ematea da gure helburua.

10. Harategiko 100 urteak modu berezian ospatuko dituzue?
Bai. Tarteka bezeroei eskaintzak, produktu berrien dastaketak eta opariak egingo dizkiegu aurten go ekaina eta heldu den urteko ekaina bitartean. Adibidez, joan den astean San Pedrotarako enkarguak egin zizkiguten bezeroei, gazta tarta bat oparitu genien.

11. Zorionak eta urte askotarako!
Mila esker!